

hh  
hik hasi

Konfiantzaren pedagogia  
Pi del Soldat: familiarizazioa  
Kirol hezitzailea  
Etxea buruan eta ibili munduan  
Autoezagutza  
Alluitz Natura  
Alex Tello

3  
0  
2



“ Ikaslea ahalduntzeko ideia izan behar dugu oinarri eskoletan, eta ez kontrolarena ”

RICHARD GERVER



EZAGUTZA  
LIBURUA



# LUR eta AMETO Euskal Herriaren historia

[www.luretaametshistorian.eus](http://www.luretaametshistorian.eus)



IPUINAK

## EZAGUTU GURE HERRIAREN HISTORIA

# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

Umeak, zailtasunak kudeatu eta bere gaitasun guztiak garatu ahal izateko, konfiantza izan behar du bere buruarengan, besteengan eta inguratzen duen horretan. Eta, konfiantza hori eraikitzen laguntzeko baldintza egokiak sortzea da hezitzaileen egitekoa. Premisa horretatik abiatuta jarri zuten martxan Konfiantzaren Pedagogia Arizmendi Ikastolan eta pixkanaka ikastola gehiago batu zaizkie.

ELKARRIZKETA / 18

## RICHARD GERVER

Erresuma Batuko Grange eskolaren zuzendari izanik, hezkuntza-eredua irauli zuelako eta berritzaile izateagatik nazioartean erreferente bilakatu da Gerver. Ikasleengan arreta osoa jarri behar dela dio eta eskola uztean bizitzan aurrera egiteko beharrezko gaitasunak izango dituztela bermatu behar duela eskolak.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANtZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2015-11-13).

Kopurua: 4.000 ale.

Hik Hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Konfiantza, zaindu beharreko balio hori

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Konfiantzaren pedagogia

18 ELKARRIZKETA

RICHARD GERVER

“Beren bizitzarekin gustura dauden ikasleek gustuko dute ikastea”

26 ESPERIENTZIAK

Pi Del Soldat: familiarizazioa

30 EKARPENAK 1

Formazioa kirol hezitzailean

32 EKARPENAK 2

Gure etxea buruan eta ibili munduan

36 GALDEIDAZU

NAIARA GORROÑO

Autoezagutzaren balia garrantzitsua

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Alluitz Natura

42 ATZEKO ATETIK

Alex Tello





# hik hasi


# 28.

monografikoa



## II. Herri hezitzailea Eskola herritarra

Apirilean, Donostiako Kursoalen egin ziren "II. Herri hezitzailea, eskola herritarra" jardunaldien edukia jasotzen duen 28. liburu-monografikoa argitaratu du Hik Hasi.



Eskaera egiteko: [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)



# Konfiantza, zaindu beharreko balio hori

## editoriala

ESKOLAN HAURRA SEGURU SENTITU BEHAR DA, KONFIANTZA GIRO BATEAN, ETA, HORI BERMATZEN DENEAN, IKASLEA PREST EGONGO DA IKASTE-IRAKASTE PROZESUAN EGOKI BARNERATZEKO



**K**onfiantza handia, ia erabatekoa jartzen dugu irakasleengan. Guretzat oso garrantzitsua da irakasleez fidatzea. Ez aritzea atzetik presioa egiten eta eskua gehiegi sartzen”. Hala gogorarazten zigun Leo Pahkin Finlandiako Hezkuntza Nazionaleko aholkulariak joan den udaberrian. Antzera mintzo da orain, aldizkari honetako elkarrizketa nagusian, Richard Gerver irakasle sonatua: “Ingurune seguru eta konfiantzazko batean jendeak bikaintasunez egiten du lan. Elkar errespetatuz eta elkarrengan konfiantza izanez eraiki behar litzateke eskola”.

Konfiantza dagoenean gauza guztiak ahalik eta modu onenean interpretatzen dira eta gure aldetik egin dezakegun guztia egiten dugu arazoei aurre egiteko. Baina konfiantzarik ez dagoenean?

Esan erraz egiten da, baina, gero, eguneroko praktikan, samurra al da konfiantzaz jardutea? Edota konfiantzari gain hartzen diote, sarri, errezeloek eta susmo txarrek?

Ingurukoengan konfiantza izatea kontu kulturala ere bada. Badirudi gurean urruti gaudela Finlandiatik. Baina guk ere konfiantzaren gizartea eraiki nahi badugu, txikian aldaketak eginez hasi beharko dugu, behetik gora. Izan ere, ekinez egiten da bidea, eta horrexegatik, hezkuntzan konfiantzak duen garrantzian jarri nahi izan dugu begirada aldizkari honetan. Konfiantzaren Pedagogiari buruzko gai nagusian ageri den moduan, umeak, zailtasunak kudeatu eta bere gaitasun guztiak garatu

ahal izateko, konfiantza izan behar du bere buruarengan, besteengan eta inguratzen duen horretan. Amaia Antero Arizmendiko kideak dioen moduan, haurra seguru sentitu behar da, konfiantza giro batean, eta, hori bermatzen denean, ikaslea prest egongo da ikaste-irakaste prozesuan modu egokian barneratzeko. Baina horretarako garrantzitsua da komunitatearekin lotura egitea, bai familiarekin bai gizartearekin, eta etxearen eta eskolaren artean konfiantzazko harremanak lantzea. Izan ere, haurrak sumatzen badu konfiantza giroa gurasoen eta hezitzaileen artean, bera ere konfiantzan sentituko da: “Familiekiko elkarlana gakoa da. Oso ondo landu behar dugu etxetik ikastolarako trantsizioa. Gurean, familiarizazio-prozesu deiturikoaren baitan, ikasturte guztian zehar etortzen dira guraso, aiton-amona edo zaintzaileak ikasgeletara”. Beste horrenbeste egiten dute esperientzien atalean jasotako Pi del Soldat haur-eskolan ere. Familia eskolan sartzen da eta hezitzaileak haurren etxeetara joaten dira.

Konfiantza gakoa da giza harremanek garrantzia duten edozein ingurunetan. Beraz, baita hezkuntzaren arloan ere. Baina ez dugu ahaztu behar, Paco Cascon psikologoak dioen moduan, konfiantza irabazi egiten dela, ez inposatu, eta konfiantza sortzea errazagoa dela konfiantza hori berreskuratzea baino; alegia, konfiantza behin galduz gero oso nekeza izaten dela berreskuratzen. Zaindu ditzagun, bada, konfiantzazko harremanak.

---

**“Botere publikoak izan du joera pentsatzeko garapen ekonomikorako ikasketa teknikoak eta teknologikoak direla baliagarriak. Humanitateak apaindura bat izan dira, eta pentsatu da ez direla hain beharrezkoak garapen ekonomikorako. Hori oso arriskutsua da”**

Gregorio Monreal





## 50. URTEURRENA ARI DIRA OSPATZEN NAFARROAKO IKASTOLAK

Nafarroako ikastolek 50 urte bete dituzte. Mende erdi bat Iruñeko Uxue ikastolak bidea urratu zuenetik. Hiriburuko ekimenari jarraituz, lurraldeko beste hainbat tokitan ere ikastolak sortzen hasi ziren. Horren ondorioa da gaur egungo ikastolen sarea: 15 ikastetxe, 6.400 ikasle, 4.200 familia eta 600 profesional baino gehiago. Hori ospatzeko hamaika egitasmo izan dituzte; hala nola, Ziklo Martxa eta Oskorriren Agurra, *Ametsa egia* liburuaren aurkezpena, Igeriketa txapelketa, Jardunaldi pedagogikoak, edota ospakizun gala. Zorionak!

## LOMCE SALATZEKO MOBILIZAZIO JENDETSUAK

Hezkuntza Plataformen Topaguneak deituta, manifestazioak egin dituzte Euskal Herriko lau hiriburuetan, 2015-2016 ikasturtean ere LOMCE Hego Euskal Herriko ikastetxeetan indarrean dagoela salatzeke, eta, horrekin batera, hezkuntza eredu propioa eskatzeko Euskal Herrirako: “Ez dugu LOMCE nahi eta ez dugu momentuz LOMCE aplikatzen duen Heziberririk nahi ere. Guk Euskal Herrirako Hezkuntza Sistema Propioa nahi dugu. Egungo eredu arrotza gainditu eta gure hezkuntzaren gaineko erabakiak guk geuk hartu nahi ditugu, gure ikastetxe eta herrietatik”, aldarrikatu dute antolatzaileek.



## IRAKASLE BERRIEN % 70-i EUSKARA ESKATZEAK SUA PIZTU DU NAFARROAN

Nafarroako Gobernua osatzeko egindako akordio programatikoa aurreikusi bezala, hezkuntzako langileei zuzenduriko lan eskaintza publikoaren iragarpena egin zuen azaroaren hasieran Jose Luis Mendoza Hezkuntza kontseilariak. Aurkeztutako agirian jaso bezala, 425 lanpostu bete nahi ditu datozen bi urteetan: Haur eta Lehen Hezkuntzakoak ikasturte honen bukaeran, eta Bigarren Hezkuntzakoak gero.

Zehazki, 2016ko deialdian 320 irakasle postu betetzea da Hezkuntza Departamentuaren helburua. Horietatik, euskara eskakizun izanen da 228tan: %71n. Hamalau ikuskatzaile lanpostu ere bete nahi dituzte datorren urtean, eta horietatik zazpik frogatu beharko dute euskaraz lan egiteko gai direla. Irakasle lanpostuen azterketak datorren urteko ekain eta uztail artean egingen lirateke, eta ikuskatzaile postuenak, berriz, 2016ko arazoan. 2017an, Bigarren Hezkuntzako 91 irakasle lanpostu eskainiko lirateke, baina Mendozak azaldu duenez, gehiago ere izan litezke, erretiroen eta bestelako ordezkapenen arabera.

Hezkuntza kontseilariak argitu bezala, mahai orokorrean eztabaidatu behar dute auzia, lan eskaintza publikoa onartu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baino lehen. Berez, urtarrilean egingen da deialdi ofiziala.

Edonola ere, alderdi, sindikatu eta eragile asko ditu kontra Jose Luis Mendozak, lanpostu gehienetan euskara eskatzea “gehiegizkoa” dela argudiatuta. Izan ere, proposatutako lan eskaintza publikoari aurka egin zion Nafarroako Legebiltzarreko Mahai eta Eledunen Batzarrak. Espero bezala, aurreko gobernuaren aldeko indarrek —UPNk, PPK eta PSNk— bat egin zuten gobernu berriaren egitasmoaren kontra, baina ezusteko babesarekin: Ezkerrako eta Ahal Dugu-ko ordezkariena, alegia. Hala argudiatu zuten PSNk aurkeztutako adierazpenaren bidez: “Nafarroako Gobernuak aurkeztutako lan eskaintza publikoa arbuatzen du legebiltzarrak, desoreka onartezina eraginen luke-elako euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko diren lanpostu kopuruen artean, eta, bestalde, bereizkeria iraingarria izanen litzatekeelako behin-behinean diren profesional askorentzat”. Beraz, uneotan ikusteko dago zer gertatuko den.



# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## LEHEN MAILAKO ESKOLA BERRIA IZANGO DU BAIONA TTIPIAK

Baiona Ttipiko lehen mailako eskolak atek itxiko ditu 2017-1018 ikasturtearen hasieran, eraikina Bonnat Museoa handitzeko erabiliko delako. Eskolako gurasoekin hilabeteak hausnartzen igaro ondoren, Herriko Etxeak egoerari irtenbidea emateko modua erdietsi du: eskola berri bat irekiko du Baiona Ttipian, Ravignan kalean dagoen Medikoak peñaren eraikinean. Modu horretan, kultura eta hezkuntzaren aldeko politika bermatu nahi ditu.

Gurasoek hainbat alternatiba zituzten esku artean, haurrak Baiona Handiko ikastetxera lekualdatzea, kasurako. Baina, azkenean, Medikoak peñaren eraikinean eskola berria eraikitzea hobetsi du Herriko Etxeak. Ikastetxeak 50 bat metro koadroko hiru gela, irakasleen gela, liburutegia eta aisialdirako espazioa izango ditu, besteren artean. Obrek guztira 1,3 milioi euroko kostua izanen dute.

Eskolako guraso zenbaitek proiektua egokitzat jo duten arren, bada hainbat gurasoren damua eragin duen arazo bat: eraikin berria egokitu baino lehen, eta behin Bonnat Museoarekin lanak hasiak direla, ikasleek egoitza modularretan egon beharko dutela.

Herriko Etxeak azaldu duenez, orain arte lehen mailako eskola izan denaren eraikinean Bonnat Museoa erreserbak sortuko ditu, obrak bertan gorde ahal izateko. Eraikinean harrera salak eta publikoarentzako gelak ere sortuko dituzte. Obrak, berriz, 2019rako amaituta egotea aurreikusten dute.

## ARRAKASTAZ EGIN DA EL MARTINET IKASTETXEAREN ESPERIENTZIA EZAGUTZEKO JARDUNALDIA



170 lagun baino gehiago elkartu ziren, Hik Hasik antolatuta, Bartzelonako El Martinet eskolaren esperientzia ezagutzeko azaroaren 20an eta 21ean Donostiako EHUan egin ziren jardunaldietan. Ostiralen, Ripolleteko ikastetxe berritzailearen hezkuntza-proiektuaren ezaugarriak ezagutzeaz gain, eskolaren inguruan egindako dokumentala ikusteko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Larunbatez, berriz, hiru multzotan banatu ziren hezitzaileak (3,4,5 urteko ikasleekin jarduten dutenak; 6,7,8 urtekoenak; eta 9, 10,11 urtekoenak) eta adin-tarte bakoitzari dagozkion gai zehatzak landu zituzten.

Nola Katalunian hala lurraldetik kanpo, El Martinet eskola publikoa ikastetxe eredugarritzat hartzen da, ongizatean eta errespetuan oinarrituriko pedagogia aurrerakoiagatik eta komunitarioagatik; espazio eta ingurune aberatsengatik eta nortasun demokratiko eta berdinzaleagatik.

El Martineten projektua lan egiten dute, hasi 3 urtetik eta 12ra bitartean, adin guztietako ikasleek nahasian, testulibururik eta irakasgaika banatutako ordutegi hertsirik gabe, haurren gaitasunetan oinarrituz, haien interesetan eta egiten dakiten horretan arreta jarriz, eta bakoitzaren erritmoak errespetatuz. 11 urteko ibilbidean, sistema barruan ere beste eredu bat posible dela frogatu dute. Hala dio Montserrat Navarro zuzendariak: "Proiektuan interesa genuen irakasleok hainbat balio zahar, ohitura eta inertzia mahai gainera ateratu genituen, hasiera-hasieratik, gure eskolari begi berriekin begiratu nahi izan genion. Eskola honi buruz pentsatu genuenean, garapen pertsonal eta sozialerako espazio pribilegiatu gisa planteatu genuen; leku adeitsu eta atsegin bat, lasaia eta bizigarria, eraiki nahi genuen, bertan parte hartuko zuten pertsona guztien bizi-kalitatea bermatuko zuena".





## XUXEN 5, EUSKARAZKO ZUZENTZAILE ORTOGRAFIKO BERRIA ESKURAGAI DA



Euskaraz zuzen idazteko Xuxen zuzentzailearen azken bertsioa sarean da dagoeneko. Bosgarren alea da eta aldaketa nabarmenak dakartza. Batetik, eguneratua dago: Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua eta Elhuyarren hiztegiak oinarri gisa harturik, datu basea berriro dute; bestetik, akatsen zuzenketak ez ezik, Hiztegi Batuko hobespenak ere badakartza Xuxen berrituak. Elhuyar fundazioaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko IXA taldearen proiektua da euskara zuzentzailearena. Zerbitzua dohainik jarri dute eskura, Interneten. Xuxen 5 zuzentzailea eta azken eguneratzeak eskuratzeko, [xuxen.eus/bertsioak](http://xuxen.eus/bertsioak) gunera jo behar da.


Hogei urte pasatxo dira Xuxen euskara zuzentzailea sortu zutela. Harrezkero ezinbesteko tresna izan da euskarazko testuak idazten dituzten askorentzat, eta laguntza izan da euskararen normalizaziorako ere. Urteen joanarekin gaurkotuz joan dira bertsioak, teknologiaren aldaketetara eta euskararen estandarizaziora moldatzeko. Azken bertsioa da bosgarren Xuxen. Hitz soilen zuzenketaz gain, zuzenketa gramatikalak ere badakartza Xuxenek. Datu-baseetan egin dute errepasoa. Hiztegi Batuan aldaketak egiten dituzte aldi-aldi, eta horiek ere txertatu dituzte datu-baseetan; Elhuyar hiztegi-tako berritasunak ere bai.

Oker idatzitako hitza edo Euskaltzaindiak hobetsitako ordain bat daukana azpimarratu egiten ditu Xuxenek testu prozesagailuan. Baina egileek erabiltzaileei aholkatu diete itsu-itsuan ez jokatzeko, baizik eta kasuan-kasuan erabakitzeke Xuxeni men egin edo ez. Areago orain, forma hobetsiak ere sartu dituztelarik.

## HEIKE FREIREREN 'BERDEAN HEZI' LIBURUA EUSKARAZ ATERA DU TXATXILIPURDIK

Haurraren garapen osasuntsurako naturarekin harremana izateak zernolako garrantzia duen azaltzen du Heike Freire psikologoak *Berdean Hezi* liburuan: "Helduok onartu behar genuke, afektuaz, elikadura egokiaz eta lo ondo egiteaz gain, haurrarentzat hil ala bizikoa dela Lurrarekin harremana izatea". Ikastetxeetako hezkuntza-proiektuetan naturarekiko harremana txertatzearen aldekoa da Freire. Gertu dauden espazio naturalak erabiltzera gonbidatzen ditu hezitzaileak, jolas-tokia lorategi edo baratze bihurtzera, eta hirietako leku hutsak naturaz betetzeko deia egiten die herritarrei.

Orain euskaraz eskura daiteke liburua, Txatxilipurdi elkartearen ekimenez Diego Martiartuk itzulita. Txatxilipurdi argitaratzen duen bigarren liburua da. Aurretik Francesco Tonucci pedagogoarekin *Haurren Hiria* euskaratu eta kaleratu zuten.





# HIZPIDE IZANGO DA

## DURANGOKO AZOKAN AURKEZTUKO DU HIK HASIK ORAIN CD-A



Mende erdi beteko du aurten Durangoko Azokak, eta berezia izango da horregatik aurtengo edizioa, urteurrena ospakizun bilakatu nahi baitu Gerediaga Elkartek. Horrexegatik, aurreko urteetan baino egun bat gehiago iraugo du aurtengo azokak. Abenduaren 4tik 8ra, zehazki.

Urteroko legez, Hik Hasi egitasmo pedagogia ere Durangon izango da, monografikoak, liburuak, CDak, musika-materiala... saltzen. Aurtengo nobedadea, berriz, kontzentrazioa lantzeko erlaxazio ariketen *Orain CD-a* izango da. Marina Pintos piano eta yoga irakaslea da diskoaren egilea eta Saguganbara gunean egingo du aurkezpena abenduaren 6an, 12:30etik 13:00etara. Berak sortu ditu diskoan jasotako kontzentrazio eta erlaxazio ariketak, eta musika zein ahotsa ere bereak dira. CD-an bildutako ariketak eskolan nahiz etxean landu daitezke, eta haurrentzat zein helduentzat aproposak dira.

## UEU-K IRAKASLEEN FORMAZIORAKO HAINBAT IKASTARO DAUZKA AURREIKUSITA URTARRILERAKO

Irakasleen eguneroko jardunerako baliagarri izan daitezkeen hiru ikastaro hasiko ditu UEUK urtarriean: *Testu literarioak lantzeko estrategiak eta baliabideak*, Amaia Serrano eta Iratxe Retolaza irakasleek emango dutena; *Matematika eskuekin eta baliabideekin LHN*, Lorena Egidazu irakasleak gidatuta egingo dena; eta *Coaching Bigarren Hezkuntzako ikasgeletan*, Gotzon Cercar coach pertsonalak eskainiko duena.

## 'II. HERRI HEZITZAILEA, ESKOLA HERRITARRA' MONOGRAFIKOA ARGITARATU DU HIK HASIK

Duela bi urte Francesco Tonucci pedagogo eta *Haurren hiria* egitasmoaren sortzailearekin hasitako bideari jarraipena emateko, "II. Herri hezitzailea, eskola herritarra" izeneko jardunaldiak egin ziren joan den apirilean Donostiako Kursaaletan. Xedea zen haur guztiak kontuan hartzen dituen eskolaren eta herriaren Finlandiako, Kataluniako nahiz Euskal Herriko hainbat esperientzia ezagutzera ematea.

Han landutakoa jardunaldiaren izen bera daraman *II. Herri Hezitzailea, Eskola Herritarra* monografikoan bildu du Hik Hasi. Aldizkariko harpide guztiei bidaltzeaz gain, eskuragarri dago jada [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunean.



**II. Herri hezitzailea  
Eskola herritarra**



Umeak, zailtasunak kudeatu eta bere gaitasun guztiak garatu ahal izateko, konfiantza izan behar du bere buruarengan, besteengan eta inguratzen duen horretan. Eta, konfiantza hori eraikitzen laguntzeko baldintza egokiak sortzea da hezitzaileen egitekoa. Premisa hori du oinarrian Konfiantzaren Pedagogiak, eta, horretarako, haurren zaintza eta behaketa gakoak izango dira, baita espazioak proiektu pedagogikoaren zerbitzura jartzea ere. Leintz bailarako Arizmendi Ikastolan jarri zuten abian eredu pedagogiko hori, eta pixkanaka ikastola gehiago batu zaizkie bidera.



# GAIA: KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

## Norberarekin, besteekin eta inguruarekin harremanetan

Edozein harreman konfiantzan oinarritzen da”, horrela dio Konfiantzaren Pedagogiaren inguruan egindako dokumentalean Arizmendi Ikastolako irakasleetako batek. Hain zuzen, pedagogia-eredu horretan oinarrituta lan egiten duten ikastolen jarduneko bi hitz gakoak jaso eta lotu ditu 5 hitzeko esaldian: konfiantza eta harremanak. Horixe abiapuntua, horiexek Amaia Anterok, Arizmendi Ikastolako Berrikuntza Pedagogikoko zuzendariak, Konfiantzaren Pedagogiaz egiten duen deskribapenaren oinarrian dauden kontzeptuak. “Pertsonari bere hezkuntza ibilbidean bere buruarengan, besteeengan eta inguruarengan konfiantza izan dezan laguntzea” da, Anteroren arabera, Konfiantzaren Pedagogiaren muina, pertsona horrek “bere gaitasunak ahalik eta ondoen garatzeko”.

Arizmendi Ikastolan 7 urte daramatzate eredu horren baitan lanean. Debagoieneko Leintz bailarako 4 ikastolaren baturatik sortu zen, 2003n: Haur Hezkuntzan bakarrik 850 ikasle eta 80 irakasle eta hezitzaile biltzen ditu. Guztiak 2008 urtetik Konfiantzaren Pedagogiaren oinarrien arabera ari dira ikasten eta irakasten. Orduetik beste hainbat ikastola batu dira Arizmendik hasitako bidera: Lekeitioko RM Azkue Ikastola, Bergarako Aranzadi Ikastola, Orioko Herri Ikastola, Iruñerriko San Fermin Ikastola, Tolosako Laskorain Ikastola, Oñatiko Txantxiku Ikastola, Usurbilgo Udarregi Ikastola eta Leioako Betiko Ikastola.

7 urteko ibilbidearen ostean, Arizmendik abiatutako pedagogia-eredu horren filosofiaren oinarriak eta praktikaren gakoak zehaztean ari da buru-belarri Amaia Antero. Egindako azterketa liburuxka batean gorpuztu du, eta laster ikusiko du argia; Konfiantzaren pedagogia: Arizmendi Ikastolaren markoa izenburua eramango du.

Anterok berak aitortu bezala, gaur egun hezkuntza-munduko eragile askok aipatzen dute eraberritzeko beharra; edukietan oinarritutako hezkuntza-ereduak albo batera utzi, eta gaitasunetan eta bizipenetan oinarritutako eruedetara jotzeko beharra, eta askotariko esperientziak ari dira gartzten bide horretan. Bada, hortaz, zerk egiten du desberdin Konfiantzaren Pedagogia? “Guk ere esaten dugu ikasleak testuinguru errealetan jarri behar ditugula, eta horiei erantzuten irakastea dela gure egitekoa. Baina, era berean, horren aurreko egoeran edo egoera horren aurrekarietan jartzen dugu arreta: bermatu behar dugu ikasleak sentitu behar duela konfiantza bere buruarengan, konfiantza izan hezitzaileengan, konfiantza ikaskideengan, eta konfiantza testuinguru horretan. Sentitu behar da seguru, konfiantza-giro batean, eta, hori bermatzen denean, ikaslea prest dago ikaste-irakaste prozesuan modu egokian barneratzeko”.

Kontzeptu horren funtsean, pertsona ulertzeko modu bat dago, norbanakoaren ikuskera zehatza. Izan ere, Konfian-

# GAIA: KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

Norberarekin, besteekin eta inguruarekin harremanetan

tzaren Pedagogiaren arabera, “ikaslea ez da hutsik dagoen zerbait”, irakasleak edukiz edo gaitasunez *bete* beharrekoa, baizik eta “ikaslea ondo armatuta eta ekipatuta dago berez. Gure egitekoa da berari horretaz jabetzen laguntzea, ahal-dundu dadin, eta, auto-konfiantza horretatik abiatuta, berak egin ahal duen bidean laguntzea”. Beraz, irakaslearen egitekoa da ikaslearen bidelagun izatea, bere gaitasunak, beharrianak eta zailtasunak deskubritzen laguntzea.

Arizmendi Ikastolako praktika ezagututa, duela lau zapabost urte Konfiantzaren Pedagogiaren bideari ekitea erabaki zuten Lekeitioko RM Azkue Ikastolan. Ordu arte bazituzten zalantzak euren jardun pedagogikoaren inguruan; haurren beharrak eta gaitasunak errespetatu eta garatzen lagun ziezaiekeen zerbait egiteko grina zuten. “Ez geunden oso gustura gure praktikarekin, akatsak ikusten genituen. Orduan, Arizmendin egiten ari ziren lana ezagutu eta aukera ikusi genuen gure beharrianei erantzuteko; gure hutsuneei erantzuna eman ahal ziela ikusten genuen”, dio Bego Gordillok, Lekeitioko Ikastolako psikopedagogoak. Urtebete inguru ibili ziren Arizmendin bertan formakuntza jasozten. Baina, Arizmendin bezala, Lekeition ere Rafael Cristobal Psikologoaren laguntza giltzarria izan da Konfiantzaren Pedagogia indarrean jarri eta garatzeko bidean.

Izan ere, orain modu teorikoan jaso duten hori, hein batean aspalditik ari ziren lantzen modu intuitiboan Leintz bailarako ikastolatan. Arizmendi Ikastolako Haur Hezkuntzako zuzendari Aitor Elizaranek aipaturiko dokumentalean dioen moduan, 1950 eta 60ko harmakadetan ikastolak sortzean, helburua ez zen soilik haurrei euskarazko hezkuntza ematea: horretaz gain, xede zuten bestelako eredu-pedagogiko bat sustatzea. Horretarako, guraso eta irakasleen elkarlanetik eta harremanetik sortu zituzten ikastolak. Eta, modu intuitiboan egiten zuten horri, “oinarri enpirikoa edo zientifikoa” eman dio Rafael Cristobalek orain. “Aitortza bat zor diogu Rafalek Cristobali. Haur psikiatra gisa, bere helburuetako bat da oinarri enpirikoa ematea haurrekin egiten dugun esku-hartzeari. Gaur egun iritzi muturrekoak daude haurren heziketaren inguruan, eta joera pendularra dugu: mutur batetik bestera pasatzen gara. Cristobalek, horren kontzientzia harturik, esaten du ezin dugula neska-mutikoen heziketa eta garapena iritzien esku utzi, gure galdera eta kezkei erantzuteko zientzian oinarritu behar dugula. Haurraren alderdi afektiboari eta emozionalari nola erantzun jakiteko orduan, argia datorkigu Rafaelen hausnarketetatik”, dio Anterok.

Hain zuzen ere, Cristobalen ekarpena izan zen senaren

kontzeptua txertatzea ikastola hauetako pedagogian. Horren arabera, animaliek bezala gizakiek ere senak dituzte, eta horien egitekoa da pertsonaren bizi-iraupena bermatzea. Beldurra, esploratzeko-grina, zaintzarako joera... izan daitezke sen horietako batzuk. “Rafaelek azaltzen digu haurrak zaindua izatea bezainbeste behar duela esploratzeko aukera, miatzekoa. Eta, gaur egun nagusi den espazioaren antolakuntzak, ez du laguntzen horretan. Espazioek erantzun behar diote haurraren atxikitzeko beharriari, baina baita esploratzeko beharriari ere. Lotura behar du, baina baita autonomia ere”. Horretarako, ikasgelen hormak behera bota eta espazioak zabaltzea proposatu zien Cristobalek, eta espazio horietan hiru dimentsiotako materialak eta egiturak sartzeko, espazioa erakargarri egin eta haurrek modu autonomoan esploratu dezaten. Gainera, psikiatraren arabera, haurrak badu beste adin batzuetako umeekin egoteko beharra ere, eta hori izan da hormak botatzeko beste arrazoietako bat: egitura konpartimentatuarekin amaitu eta adin desberdinetakoek espazioak partekatzea.

Bestalde, haurra espazio horietan seguru sentitu dadin, “irakaslearen rola aldatu egin behar da: familiekin elkarlanean, oso ondo landu behar dugu etxetik ikastolarako trantsizioa, haurra benetan seguru sentitu dadin bi lekuetan”. Anterok berriro aipatzen du Konfiantzaren Pedagogiaren beste gakoetako bat: irakaslearen rola. Hain zuzen, irakasleek bidelagun izate horretan nola jokatu, ikasleen garapen bidean nolako esku-hartzea izan behar duten aztertu du.

## Irakasleak zertan hartu behar du esku?

Anterok irakasleen esku-hartzerako hiru eremu identifikatu ditu. Lehenengoa, ikasleen zaintzarekin eta garapenarekin dago lotuta: zaintza izango da ikasleak bere buruarengan eta besteengan konfiantza eraikitzekei ernamuina. Eremu horretan hezitzaileek egin beharreko lana zein zen definitzeko, honako galdera egin zuten: umeak bere buruarengan eta besteengan konfiantza izan dezan, bere burua eta besteak zain dituzan, zein baldintza pedagogiko eskaini behar dizkio ikastolak? “Bost adierazle zehaztu genituen: senak lantzea; gaitasunak identifikatzea, baloratzea eta lantzea; zailtasunak garaiz hautematea eta kudeatzen laguntzea; sufrimenduarekin enpatizatzea; eta zaintzaileak zaintzea”.

Baina, bere buruarengan eta besteengan ez ezik, ikasleak inguruarengan ere konfiantza sentitu behar du prozesu kognitiborako irekita egoteko. Bada, hain zuzen, testuinguruan garapenerako baldintza egokiak sortu behar ditu



## GAIA: KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

irakasleak. “Esaten badugu inportantea dela pertsonak bere hezkuntza-ibilbidean konfiantza sentitzea bere tes-tuinguruarengan, zer baldintza eskaini behar ditugu hori eraikitzeko? Lau erantzun atera zitzaizkigun: inportantea da komunitatearekin lotura egitea, bai familiarekin bai gi-zartearekin; inportantea da espazioak eta denborak kontuan izatea; inportantea da gelan giro atsegina sortzea; inpor-tantea da taldekatzeak nola egiten ditugun, seguru sentitu dadin testuinguru horretan”, dio Anterok.

Behin konfiantzako eremuak eraikita, ikasleak bere bidea egin behar du, pertsona gisa garatu. Garapen horrekin loturik dago, hain justu, irakasleek esku hartu beharreko hirugarren eremua: Nola lagundu ikasleei beraien gaita-sunak ahalik eta ondoen gara ditzaten? Nola sortu irakatsi eta ikasteko baldintza egokiak? “Hortik beste adierazle batzuk atera genituen: motibazioa mobilizatzea; ikaskuntza aktiboa ardatz izatea; ebaluazio hezigarria praktikatzea; eta adimen aniztunak lantzea”, dio Anterok.

## Zaintza, konfiantza eraikitzeko giltza

Lekeitioko Ikastolan, marko pedagogiko propiorako liburuxkarik garatu ez badute ere, dekalogo batean labur-

bildu dute beraien filosofiaren eta praktika pedagogikoen funtsa. Eta, lehenengo puntuan, ikastolak familiekin eta komunitatearekin harremanak sortzearen garrantzia azpi-marratzen dute. Bai Arizmendin bai Lekeitioko Ikastolan, atek zabalik daude, gurasoak nahi duten momentuan, eta nahi duten bezainbestetan, etor daitezten. Ikastola hauetan ez dago bizpahiru asteko adaptazio-prozesurik: familia-rizazio- edo etxekotasun-prozesua deitutakoaren baitan, ikasturte guztian zehar etortzen dira guraso, aitona-amonak edo zaintzaileak ikasgeletara.

Hala, irakasle eta familien arteko harremanak sendotu egiten dira, konfiantza-giroa sortzen da, eta horrek erraztu egiten du, batetik, haurrak bere hezitzailea izango dena-rekin atxikimendua sortzea, eta, bestetik, espazio berrian eroso eta babestua sentitzea. Gisa horretara, zaintza-sena asetzeko baliabideak emanda eta seguru sentiarazita, hau-rrak bere buruarengan eta besteengan konfiantza garatuko du. Hori da, Anterok aipaturiko lehen esku-hartze eremuan egindako lanaren oinarria. “Etxetik espazio berri batera datorrenean, haurrak atxikimenduaren sena aktibatuta badauka, nekez hasiko da espazio berri hori esploratzen. Haurrak sumatzen badu konfiantza-giroa gurasoen eta hezitzaileen artean, hasten da pixkanaka gurasoekiko atxikimendua jaisten eta hezitzailearekin duen atxikimen-



Adin desberdinetako haurrek espazioak partekatzen dituzte, eta nagusiak txikien erreferente bilakatzen dira. Irudian, Lekeitioko ikastola.

# GAIA: KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

Norberarekin, besteekin eta inguruarekin harremanetan



Proposamen erakargarriak egitea da erronka txokoetan.

dua aktibatzen; behin hori egin denean, hasiko da espazioa esploratzen”, dio Aitor Elizaranek, Arizmendik Ikastolako Haur Hezkuntzaren zuzendariak.

Lekeitioko ikastolako Bego Gordilloren arabera, lehen baino errazago egiten dute atxikimendua orain umeek ikastolako hezitzaileekin: “Lehen buruan genuen urritik aurrera gurasoek ez zutela egon behar gelan. Orain ez dago mugarik, eta hobeto doa dena. Denon antsietatea hainbeste jaitsi da!”. Bat dator Arizmendiko Elizaran ere: “Familiek izugarri eskertzen dute, familiarizazio-prozesuak oso lasaiak izaten dira orain”. Hala ere, “dena ondo badoa, pare bat asteren bueltan desagertzen joango dira gurasoak, lana eta betebeharrak tarteko; sartu-ertena egingo dute handik aurrera. Gurasoentzako ez dago ordutegirik, eta nahi dute-nean sartu eta atera daitezkeenez, hezitzaileekin harremana etengabekoa da”.

Modu horretan, gainera, gurasoek ikastolan duten parte-hartzea ere areagotu da. Lekeitioko ikastolan 4 urteko talde baten irakasle eta Haur Hezkuntzako proiektuaren ardura-duna da Alazne Varona, eta, ikastolara datozen gurasoak “lanean jartzen” ditu: “Paperak mozten edo margotzen jartzen ditut. Umeak ikusten du berarekin etorri dena beste bat gehiago dela gelan, eta errazago urruntzen hasten da. Eta gero bueltan etortzen da, baina jada esploratzen hasia da. Gurasoekin harreman horretan gauzak aldatu egin dira. Lehen izkina batean zeuden, orain etorri eta parte hartzen dute gelan. Eta, umeak sentitzen badu gurasoa irakaslea-

rekin konfiantzan dagoela, bera ere hala egongo da”. Dena dela, gurasoei gelan egoteko jarraibideak ematen dizkiete: “Azaltzen diegu ez dela beraien lana umea zaintzea; umeak egin nirekin behar du atxikimendua, irakaslearekin.” Harreman horren ondorio, guraso eta aitona-amonek parte hartzen dute espazioen erdigunean dauden egiturak muntatzen eta apaintzen, eta ipuinak kontatzera edo une horretan lantzen ari diren proiektuarekin loturiko esperientziak kontatzera ere etortzen dira.

Baina, familia eta ikastolaren arteko harremanak ez ezik, ikasleen artekoak ere lantzen dituzte Arizmendin eta Lekeition, adin ezberdinetako ikasleek espazioak partekatzen baitituzte. Izan ere, “adinen arteko interkomunikazio horretan, txikiak ikaragarri ikasten dute nagusiengandik, eta nagusiei ikaragarri gustatzen zaie erreferente izatea”, Elizaranek dioenez. Nagusien artean auto-konfiantza garatzeko beste bide bat da, baina baita zaintzarako, besteak zaintzeko sena pizteko modua ere. Txikiak, aldiz, nagusiak imitatuz garatzen doaz. Gainera, modu horretan anaia-arrebek aukera dute elkarrekin egoteko eta “asko laguntzen du, ikastolarekin familiarizazio-prozesua askoz lasaiagoa da”. Bat dator Varona ere: “Oso une politak sortzen dira. Ikusi egin behar da nola zaintzen eta laguntzen duten elkar”.

Hain zuzen ere, adin desberdinetako arteko harremanak errazteko bota dituzte hormak, besteak beste. Eta, gainera, zaintzaren eta konfiantzazko harremanen bidez behin atxikimenduaren sena aseta duenean, umeak esploratzeko sena garatu ahal izango du espazio ireki horien bidez.

## Behaketa: esku hartu garatzen laguntzeko

Espazioan egiten duen esplorazio horretan eta besteekin sortuko dituen harremanetan hasiko da ikaslearen ikaste-prozesua, eta irakasleen irakaste-prozesua. Garatu ahala, agerian geldituko dira haurren gaitasunak, baina baita zailtasunak ere. Horietan modu egokian esku hartu ahal izateko, alegia, ikasleari bere burua garatzen lagunduko dioten baldintzak sortzeko, irakaslearen egiteko inportantea izango da haurren jarduna behatzea. Hain zuzen, behaketa horren trebatzea izan da Arizmendiko eta Lekeitioko ikastoletako irakasleek jaso duten formazioaren ardatzetako bat. Amaia Anteroren esanetan, “gure irakasleen profilean oso garrantzitsua da behatzaile iaioak izatea. Horretarako, lehenbizi, pertsonak nola funtzionatzen duen ezagutu behar dute, zer behatu jakiteko: pertsonak alderdi afektibo-emozionalean eta alderdi kognitiboan nola funtzionatzen duen ezagutu behar dute; gure garunak nola egi-



## GAIA: KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

ten duen lan; horrela, pertsona bere osotasunean ezagutuko dute. Horregatik dauka hainbesteko garrantzia formazioak Konfiantzaren Pedagogian.”

Rafael Cristobalek sorturiko taula batean, ume bakoitzaren inguruan hainbat item baloratzen dute irakasleek. Gainera, irakasle guztiak dira haur guztien behatzaile, espazioak partekatu egiten baitituzte. Bego Gordilloren esanetan, “orain ekipo bat gara, eta denak dira gure umeak, eta ebaluazioa denon artean egiten dugu. Beraz, ume bakoitzaren balorazioa askoz ere aberatsagoa da orain.” Bide beretik hitz egin du Alaznek ere: “Bi begik baino, hobeto askok ikustea. Zuk zure pertzepzioa izango duzu, eta besteak berea. Ikuspegi guztiak aurrez aurre jartzean gauza interesgarriak agertzen dira, aberasgarria da.” Ebaluazio-saio eta koordinazio-bilerak baliatzen dituzte iritziak eta bizipe-nak partekatzeke. Cristobalek landuriko taularen gainean trebatzen jarraitzen dute, dena den. Zer behatu, nola, item bakoitza nola ulertzen duten adostu... “Sei haur eskola daude Arizmendin, eta 80 hezitzaile, eta behaketa-aula bateratu nahi dugu. Kontua da behaketa-aula betetzerakoan eta interpretatzerakoan zentro guztietako irakasleek berdin ulertzea: zer ari gara behatzen?”, dio Elizaranek.

## Inertziak eta beldurrak

Haurrak bere garapenean bezala, Konfiantzaren Pedagogiaren ibilbidean ere izan dira zailtasunak. Lekeitioko kasuan, lantaldetik bertatik etorri zen eredu pedagogikoa berritzeko nahia, baina, aurrez, euren beldurrak eta kezkek gairatzeko bidea egin behar izan zuten. “Hasi ginen gure artean gure ikarak partekatzen, lantzen, eta urtebeteko lan itzela izan zen. Beldurra genion ateak kentzeari, gurasoak gelan egoteari, adin desberdinetakoak nahasteari... denari”, dio Varonak. Adibidez, gaur egun ume bakoitzak hautatzen du espazio bakoitzean lantzen ari diren ekintzetako zeinetan egon, “eta hori irudikatzeak izugarritzko kontrol falta sentsazioa eragiten zigun. Orain, adibidez, nire ikasleetako pare batek interes handiagoa agertzen dute 5 urtekoek egiten dituzten ekintzetan, beraien heldutasuna jada idazketa-irakurketa fasean dagoelako, eta batzuetan alboko txokoa egoten dira beste irakaslearekin. Modu lasaian bizi dugu, eta aberasgarria da guretzat eta umeentzat. Badakigu, konfiantza dugu, beste irakaslearekin ere ondo egongo dela, eta bere jakin-mina han egiten ari direnak asetzen duela”.

Elizaranek ere aitortzen du espazioa irekitzeak beldurra sortu zuela hasieran: “Irakasleek zioten ‘baina nire 25

ikasleak ez daude nirekin!’ . Berriro ere konfiantza da gakoa: konfiantza izan behar duzu zure lankideekin. Gainera, erakuslehoak dira gure espazioak, batak bestean lana ikusi egiten du, eta denok izaten ditugu egun txarrak. Izugarritzko bidea egiten dute elkarren artean konfiantza izateko, baita norberak egiten duen lanean ere. Gure bermea da 80 hezitzaileetatik inor ez litzatekeela itzuliko horma itxien eredura”.

Hasieran, bestalde, beldur ziren gurasoen erreakzioaren inguruan ere. Lekeition, Konfiantzaren Pedagogiaren bidea egiteko apustua egitea erabaki zutenean, batzarra deitu zuten gurasoekin. “Aurkezpena ondo prestatu genuen, prestatu genituen balizko erantzunak, eta batzarrean, ‘oso interesgarria. Lehen Hezkuntzan jarraipena izango du?’ izan zen gurasoen lehen galdera”, dio Gordillok.

## Eta LHn zer?

Antzeko egoera bizi dute Arizmendin. Haur Hezkuntzan egindako ibilbidearekin “oso gustura” daude gurasoak. “Ez dugu jaso kontrako iritzirik; alderantziz, beraien galdera da: eta honek jarraipena izango al du hurrengo etapetan?”, dio Anterok. Bada, pedagogia-eredu honi jarraipena emateko lanean ari dira orain: “Azken bi urteetan lanean aritu gara egitura bat emateko honi guztiari, koherentzia eman eta jarraitu beharreko bidea sekuentziatzeko. Lehen Hezkuntzan formazio asko eman dugu, eta oso ondo baloratu dute irakasleek. Ikasturtea amaitzerako gure pedagogiari erantzuten dion planteamendu arkitektonikoa prest izan nahi genuke Lehen Hezkuntzarako. Metodologiari dagokionez, hainbat gauza egiten hasi gara”. Lekeition ere ikasturte honetan pausoak emango dituzte pedagogia haur LHn nahiz Bigarren Hezkuntzan ere indarrean jartzeko.

Koherentzia eman eta Konfiantzaren Pedagogia Arizmendiko etapa guztietara zabaltzeko bidean herramienta garrantzitsua izango da Amaia Antero lantzen ari den *Konfiantzaren pedagogia: Arizmendi Ikastolaren markoa* liburuxka. Hori izango da bideorria, eta hezkuntza-komunitate osoarekin ari dira partekatzen. Era berean, neurgarri egin nahi dituzte bertan jasotako itemak, eta, modu horretan, autoebaluaziorako tresna bilakatu. Elizaranen ustez, “etapa bakoitzean adierazle batzuk besteek baino garrantzia handia izango dute; batzuk gakoak izango dira Haur Hezkuntzan, eta Bigarren Hezkuntzan beste batzuk. Behintzat jada guztiok daukagu gure pedagogia-ereduaren markoa esku artean, Konfiantzaren Pedagogia ez da Haur Hezkuntzako kontu bat”.

## GAIA: KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

Norberarekin, besteekin eta inguruarekin harremanetan

# Espazioa, esplorazioa

**G**Amaia Anterok Konfiantzaren pedagogia: Arizmendi Ikastolaren markoa liburuxkan definitu bezala, behin haurrak bere buruarengan eta besteengan konfiantza eraiki duenean, prest egongo da inguru esploratzeko. Baina, horretarako, haurrak bere inguruarengan konfiantza sentitu behar du, eta hezitzaileari dagokio horretarako baldintzak sortzea; hori da Anterok definitutako bigarren esku-hartze eremua. Beraz, ikastolan dituzten espazioak proiektu pedagogikoaren zerbitzura jartzeko lan egiten dute bai Arizmendi Ikastolan bai Lekeitioko Ikastolan.

Jada ez dago 4 hormako ikasgela tradizionalik. Hormak bota eta espazioak ireki egin dituzte. Sehaskako umeek eta urtebetekoez espazio bera partekatzen dute; dena dela, sehaskakoen kasuan oraindik ere zaintzaren eta atxikimenduaren beharra oso nabarmena denez, hein batean gainekoengandik banatuta dago beraien gunea. Arizmendiko gunen batean, esaterako, aldapa leun batek bereizten ditu espazio bereko bi eremuak. Sehaskako umeak, bere ekimenez erabakiko du noiz zeharkatu pixkanaka-pixkanaka nagusiagoengana daraman bide hori. “Ikasturte hasieran sehaskakoen hezitzaileak 9 haur zituen, eta urtarrilean agian 7 dauzka, besteek jada nagusiagoen espazioa aukeratu dutelako”, azaltzen du Elizaranek. “Beraz, ezinbestean izan beharko du konfiantza urtebeteko haurrekin dagoen lankidearengan”. Gordilloren esanetan, espazioak partekatzeko elkarrengandik ikasteko aukera eman die, eta konfiantza handia sortu da irakasle-taldearen artean: “Lehen baino gusturago ari gara, gure lana besteek ikusteko beldur hori ere gainditu dugu, badakigu elkarri laguntzeko eta elkarrengandik ikasteko gaudela”.

2 eta 3 urteko haurrek ere espazioa partekatzen dute; bi ikastoletan beheko solairuan daude, berriz, 4 eta 5 urteko haurrak, horiek ere espazio bera partekatuz. Kasu hauetan, gelaren erdigunea hartzen duten egiturez gain, txokoek protagonismo gehiago hartzen dute. Txokoetan ekintzak egiten dituzte, eta ume bakoitzak aukeratzen du zein den bere interesa pizten duen gunea. “Lehen hori pentsaezina zen! Hori bukatu da, denok aldatu behar izan dugu ikuskerak. Orain etortzen denean ongiatorria da. Umearekiko

errespetua da”, dio Gordillok.

Modu horretan, umeari bere autonomia garatzeko baldintza hobeak eskaintzen dizkiote. “Lehen mugatu egiten genituela uste dut: gelaren muga, adinaren muga, jarduera zehatz bat egin behararen muga... Orain, bakoitzak bere erritmoan gauza interesgarriagoak egiteko aukera dauka”, dio Varonak. Uste berekoa da Gordillo: “Lehen lau paretaren artean garatu behar zuten autonomia, eta adin jakin baterako zehazten genituen jarduerak eginez. Orain mundu bat zabaldu zaie”.

10:00ak arte luzatu dute ikastolara sartzeko ordua; ordu hori baino lehen iritsitakoak jolas librean aritzen dira. 10:00etan, argiak itzali eta txokoak argiztatzen dituzten lanparak bakarrik uzten dituzte piztuta; haurrek badakite txokoren batera joateko ordua dela, eta pixkanaka hurbiltzen dira. “Autoerregulatzen ere ikasten dute: badakite ordua dela etortzeko. Dena dela, ez daude derrigortuta”,



Espazio guztietan daude psikomotrizitatea lantzeko egiturak.



## GAIA: KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

dio Varonak. Bere esanetan, orain “buruari mila bider buelta gehiago” ematen dizkio. Proposamen interesgarriak prestatu behar ditu bere txokoa egiteko, haurrek parte hartzeko interesa izan dezaten; horrek bere lana hobetzeko motibazioa ematen dio: “Zerbait erakargarria sortu behar dut, beraien jakinmina piztuko duena, eta etortzeko gogoia jarriko diena. Ondo ari naizenaren inguruko kezka handiagoa daukat, prestatzeko behar gehiago, haurrengana iristeko grina...” Hain zuzen, astelehenak horretan ematen dituzte, txoko bakoitza nola aberastu hausnartzen eta bakoitzaren esperientziak partekatzen.

Txokoetan egindako lana maiz lotuta egoten da une horretan ikastolan lantzen ari diren proiektuekin. Izan ere, ekintza gehienak gai zehatz baten ingurukoak izaten dira, eta gai horren inguruko aurkezpenak ere egiten dituzte ikasleek. Eta, haurren batek, txokoetako jardunetan parte hartu baino, lasai egoteko beharra badu, erdi-gaixorik dagoelako edo gau txarra pasa duelako, Imagiunarium-a dauka eskura. Espazio honetan irudi lasaigarriak proiektatzen dira eta eroso egoteko materialak eskaintzen zaizkio haurrari; batzuk lokartu ere egiten dira, eta haserre daudenen gordeleku ere izan ohi da. Dena dela, espazioak zabaldu dituztenetik gatazkak gutxitu egin direla diote. Berben txokoa, margoketa-txokoa, jolas sinbolikorako gunea, eraikuntza-txokoa, esperimentatzekoa... Askotarikoak daude haurraren zerbitzura, baina bada Gurasoen

Txokoa ere: ikastolara hurbiltzen diren gurasoen bilgunea. Nahi dutenean etorri eta bertan egoten dira, lasai; batik bat hasierako faseetan, gune honek rol garrantzitsua betetzen du: “Agian umea oraindik ez da seguru sentitzen eta tarteka beharra du etorri eta gurasoa bertan dagoela ikusteko. Lehen egunetan, gurasoak poliki-poliki gelatik atera eta ona etortzen dira”, dio Anterok. Dena dela, ikasgelan bete beharreko jarraibide batzuk ematen dizkiete gurasoei, haurrak autonomia hartzeko hasi duen bide hori oztopatu ez dezaten.

Espazioetan, egiturek presentzia handia dute. Erdigunean daude, eta adin tarte bakoitzeko gaitasunetara egokitzen dituzte, beti ere erronka txikiak proposatuz. “Ez daukagu psikomotrizitate gelarik, ez dugu behar. Egiturek laguntzen diete psikomotrizitatea lantzen”, dio Anterok. Txikiengelan, tamaina desberdinetako zuloak daude egituretan, haurrek ku-ku-ka ibiltzeko aukera izan dezaten, esaterako. Haurrak gordetzeko zuloak ere badaude. Izan ere, bakkari egoteko eta gordetzeko espazioak eman nahi dizkiete umeei, eta, era berean, hiru dimentsioak lantzen lagundu, “sakontasunaren dimentsioa bizitzeko aukera gutxi izaten dute eta”. Modu horretan, beraz, espazioaren esplorazioa sustatu nahi dute, haurrak inguruarekiko konfiantza gara dezan, eta, horrela, Arizmendik sorturiko dokumentalean dioen moduan, konfiantza giro horretan, umea prest dago esploratzeko, mundu kognitibo horretara zabaltzeko.



Zuloek ezkutatzera jolasteko aukera ematen dute, eta, gainera, 3 dimentsioak, bereiziki sakonera, esperimentatzeko aukera ematen diete haurrei.



“Hezitzaileon xede etikoa ez da soilik gure ikasleak azterketetarako prestatzea, beren bizitzak bizitzeko prestatzen laguntzea baizik”



# ELKARRIZKETA: RICHARD GERVER

---

## IRAKASLEA ETA HEZKUNTZA-AHOLKULARIA

Erresuma Batuko Grange eskolaren zuzendari izanik, hezkuntza-eredua irauli zuelako, eta berritzaile izateagatik, nazioartean erreferente bilakatu da Gerver. Erresuma Batuko Gobernuaren Hezkuntza aholkularia izan zen Tony Blair-en garaian. Gaur egun, berriz, munduko hamaika bazterretan ibiltzen da heziketaren inguruko hitzaldiak ematen.

‘Creating tomorrow’s schools today’ liburua idatzi duelako ere lortu du ospea irakasleak. Joan den ikasturtean Saviak BECen antolatutako jardunaldian haren hitzaldia entzun ondoren, Internet bidez egin dio elkarrizketa ‘hik hasi’-k. Ikasleengan arreta osoa jarri behar dela dio eta eskola uztean bizitzan aurrera egiteko beharreko gaitasunak izango dituztela bermatu behar duela eskolak.

**Ezaguna zara mundu osoan, Grange eskolan zuzendari zinela egindako proiektuagatik eta lortutako emaitzengatik. Erresuma Batuko eskolen artean % 10 txarrenen artean egotetik % 5 onenen artean egotera igaro zarete urte gutxiren buruan. Zein izan da horren guztiaren gako nagusia?**

Egiaz, gure arreta osoa amaigabeko politika eta ideietan jarri beharrean ikasleengan jartzen hasi ginenean hasi zen guztia. Askotan, presiopean aritzen dira eskolak, gobernuaren edota eskola-elkartearen presiopean, ikuskaritzaren edo gurasoen presiopean; eta horrek esan nahi du xede edo euskarri nagusia, ikaslea, ahaztu egiten dela askotan. Horrixe heldu genion zuzenean, eta ikasleengan eta haien beharretan jarri genuen gure arreta osoa; eskola uzten zutenean bizirik irauteko ez ezik, aurrera egiteko ere behar izango zituzten trebetasun eta gaitasunak eskura zitzaten ahalegindu ginen. Haientzat garrantzitsua izango zen curriculum baten garapenari eman genion lehentasuna; testuinguru eta esperientzia ugari bildu behar zituen curriculum horrek, eta ikaslearen adimena ez ezik, ikaslea bere osotasunean ere garatu behar zuen. Gogor lan egin genuen, gure

ikasle guztien asmo, balio eta helburuak beren zentzu osoan garatzeko konpromisoa hartuko zuen eskola bat eraikitzeko.

**Eskola goitik behera aldatu beharra zegoela ikusi zenuten. Zein izan zen inflexio-puntua?**

Eskola “porrot” egiten ari zen; azterketen emaitzak oso eskasak ziren, eta tokiko gobernuak eta gobernu horretako adituek etengabe esku hartzen zuten, arrakastarik gabe gehienetan. Eskola-elkartean, konfiantza maila urria zen; irakasleak haserretuta eta eszeptiko zebiltzan, sindikatuetan buru-belarri batzuk, eta estresatuta beste batzuk. Huts egiten ari zen erakunde bat zen, langileak ez baitziren ahaldun eta profesional sentitzen; haiek eta ikasle zein gurasoek autoestimua txikia zuten. Esperantzarik gabe zeuden guztiak. Horrek esan nahi zuen ezelango sistemarik eta egiturarik antolatzen hasi aurretik jendeak eraikitzeko duen gaitasunean jarri behar genuela arreta. Eta horretan hasi ginen.

**“Creating tomorrow’s schools today” liburuan diozu aldatzeko ezinbestekoa dela konfiantzan oinarritutako kultura izatea eskolaren esparruan.**

Erakunde batean kultura berritzaile eta dinamiko bat sortzeko, alde batera utzi behar dituzu goitik beherako zuzendaritza- eta lidergo-ereduak; langile guztiek profesional direla sentitu behar dute, eta badutela ekarpenen bat egiteko. Baina hori gerta dadin, hau da, ikerketak, lankidetzak eta sormenak aurrera egin dezaten, segurtasunezko inguru eraikitzaile bat izatea ezinbestekoa da, konfiantzan oinarritutako ingurune bat eskatzen du horrek. Eta hori ez da inolako mantra leun eta liberala. Nik bikaintasuna eskatzen nien denei etengabe, bikaintasuna barnean hartzen zuen kultura bat eraiki nahi nuen. Baina, horretarako, premisa batetik abiatu nintzen: ingurune seguru eta konfiantzazko batean jendeak bikaintasunez lan egiten duela. Horrexegatik, esperotakoa betetzen ez zenean soilik esku hartuko zen.

Eskola askotan kontrakoa gertatzen da. Halako bikaintasun bat onartzen zaie sistemai; eta kultura horietan, zuzendaritzak eta lidergoak uste sendo batean oinarrituta egiten dute aurrera: arrakasta lortzeko, jendeak kontrolatuta egon behar duela, hain zuzen. Baina horiek oso antzinako pentsamoldeak dira, eta pentsatzeko modu horrek ez dio uzten komunita-





teari garatzen eta bere burua zuzentzen.

**Zer prozesuk eraman du Grange eskola Erresuma Batuko eskola onenen artean kokatzera?**

Deskribatu ditudan arrazoi guztiek eraman dute toki horretara. Igurikimen handiko kultura bat garatzen baduzu eta kultura horrek bikaintasuna, profesionaltasuna eta ahalmena dituela onartzen bada, etengabe garatzeko eta berritzeko gai den komunitate iraunkor bat sortuko da. Ikasleak zure orbitaren erdigunean daudela ziur bazaude, eskola bikaina sortu ahal izango duzu benetan, haur horiek merezi duten eskola.

**Zure liburuan irakur daitekeenez, al daketa egiteko, ideia nagusi bat hartu duzue oinarri Grangen: pertsonak heztera bideratu duzue prozesua, ez ikasleak edo etorkizuneko langileak prestatzera. Hala da?**

Bai, halaxe da. Gure zeregina ez da robotak edo izaki berdin-berdinak sortzea; gure zeregina gazte jendeari laguntzea da, gero eta konplexuagoa den etorkizun batean garatzeko gai izango den konfiantzazko pertsona izaten laguntzea. Haur horiek helburu eta asmo horiek beren zentzu eta sakontasun osoan garatuz heziko direla ziurtatu behar dugu, eta, aldi berean, ziur izan behar dugu tokiko komunitateko, nazioko eta mundu osoko herritar gisa duten balioaz jabetu behar dutela. Ondo zehaztu gabeko etorkizun baterako prestatzen lagundu behar diegu haurrei; mundu horretan, ekintzaile gisa pentsatzeko eta jokatzeko eskatuko zaie gure haurrei; aukerak identifikatu beharko dituzte, eta, beren trebetasun, interes eta ahalmenetan oinarrituta, onena emateko adorea izan beharko dute.

**Irakasgaietan zentratutako irakaskuntza alde batera utzita, gaietan zentratutako hezkuntza hartu duzue ardatz Grangen, gaitasunen garapenean oinarrituta. Azal dezakezu hori?**

Bada hor ideia nagusi bat: irakaskuntza tradizionalaren zati handi bat abstraktua da; irakasgaiak irakasten ditugu beti; bereizitako entitateak. Baina bizitza ez da horrelakoa;

gaitasun handiko pertsonak gaitasun horiek eta beren ezaguera erabiltzen dituzte, diziplina batetik bestera aldatuz. Gako diren irakaskuntza motak identifikatuz planifikatu behar genuke gure irakaskuntza; eta, gero, horiek guztiak bateratu behar genituzke, partekatutako gaitasun eta esperientzietan, irakaskuntza horiek bide praktikoa errealean txertatzeko; horrela, ikasleek argiago ikusiko lukete irakasten zaien hori baliagarri zaiela, bai orain eta bai etorkizunean. Hori ondo eginez gero, gai ginatke ez soilik gure ikasleengan helburu eta asmoen zentzu sakon bat gararazteko; horrekin batera, gai izango lirarteke ikasleak gaitasun eta ezaguera konplexu eta aurreratuak xurgatzeko, modu bizkorrago eta eraginkorrago batean.

**Lau adar zituen zuek diseinatutako programak: komunikazioa, ekintzailetza, kultura eta ongizatea. Zergatik? Zein dira horietako adar bakoitzaren ezaugarriak?**

Subjektuekin ondoen konektatuko zuen curriculum-hurbilketa bat egin nahi genuen, funtsezkoa den irakaskuntza garatzeko eta, horrela, gure ikasleei beren etorkizunerako ahalik eta abilezia onenak eskaintzeko. Izan ere, badugu uste sendo bat: etengabe aldatzen ari den mundu honetan, gure ikasleek eskolatik irteten direnean komunikatzeko gaitasun handiak, espiritu ekintzailea eta kulturen ikuspegia nahiz ezagutza badituzte eta, oro har, ongizate fisikoa eta mentala izatearen garrantzia ondo ulertzen badute, aukerarik onenak izango dituzte eskueran beren bizitzetan. Ohiko irakasgaiak lau esparru horietan multzokatu genituen, horietako bakoitzean irakasgai bat hartuta gunetzat: komunikazioaren bihotza irakurketa eta idazketa izango ziren; ekintzailetzarena, aritmetika; eta kulturarena, zientzia. Gai izan ginen orduan gai multzoak eraikitzeke lau arlo horietan; eta, horrela, curriculum osora iristea eta jarraikitasuna bermatu ahal izan genituen.

**“Ikaskuntza partekatua” ere garrantzi handia ematen diozue Grangen. Zergatik?**

“Ingurune seguru eta konfiantzazko batean jendeak bikaintasunez lan egiten du”

“Beren bizitzarekin gustura dauden ikasleek gustuko dute ikastea ere; esperientzia dibertigarria iruditzen zaie, eta horren parte izan nahi dute”

“Garapenak giza interakzio aberatsa du oinarri, eta giza harreman oparo horiek ezingo ditu inoiz teknologiak sortu”



Lankidetzeta da ziurrenik ikaskuntza eta garapenerako prozesu garrantzitsuena, hezkuntzan ez ezik baita haren inguruan biltzen den eremu osoan ere. Lankidetzeta funtsezkoa izango da etorkizunean. Sormena eta berrikuntza ez dira bakarkako denbora-pasak, eta ezinbestekoa da guk gure ikasleak ez bakartzea eta garapena bakarkako prozesu gisa ikusten ez dutela ziurtatzea.

**Bestetik, IKTak irakasgai batean landu beharrean, tresna gisa lantzen dituzue, ezta? Zer-nolako tokia egin diezue IKTei Grangen?**

Bai. IKTak ez dira irakasgai bat; aitzitik, gure bizitzaren zati dira, eta, areago, gure haurren bizitzaren zati. IKTak eskolan lehenengoz agertu zirenean, ia inork ez zituen eskura teknologia berriak etxean, eta, beraz, funtsezkoa zen ikasleei ordenagailuak zer ziren eta zer egin zezaketen irakastea; baina oso aspaldiko kontuak dira horiek. Orain, gure bizitzan txertatuta dago teknologia digitala; Google, Twitter, Facebook edo adimendun tresnarik gabeko mundu bat inoiz ezagutu ez duen lehen belaunaldia da gure umeena. Hortaz, IKTak

edozeren osagai dira, eta bada gauza bat ezin ahantz dezakeguna: gure ikasleek guk baino askoz sen handiagoa dute, teknologia hori erabiltzeko orduan. Aurrera begira ere eskolak errealak eta garrantzitsuak izatea nahi badugu, hori onartu beharra daukagu.

**Ikasleek euren denbora librean egiten dutenari garrantzia eman nahi izan diozue Grangen. Nola ulertzen duzue hezkuntza ez-formala, eta nola uztar daiteke hori hezkuntza formalarekin? Zer egin duzue horretarako Grangen?**

Ikasten ari gara egun osoan eta egunero, eskolan egon edo ez, eskolako adina izan edo ez. Gure bizitzako lehen bost urtean bizitza osoan ikasiko duguna baino gehiago ikasten dugu; derrigorrezko hezkuntza hasi baino lehen, alegia. Hezitzaile garen aldetik, gure zeregina, gure xede etikoa, ez da soilik gure ikasleak aztertetarako prestatzea, beren bizitzak bizitzeko prestatzen laguntzea baizik. Eta hori ez da soilik ikasgela batean egin dezakegun zerbait. Ikasleak eskolan egiten duen minutu bakoitza ikaskuntza-esperientzia bat da, ikasleko aukera bat; eta, beraz, ahalik eta

gehien egin behar dugu ildo horretan, izan hezkuntza formaleko formatoan nahiz ez-formalekoan.

**Heziketa emozionalak zer toki bete du aldaketa horretan?**

Gure ikasleek beren munduan arrakasta izan dezaten, beste ezer baino lehen, adimentsuak izan behar dute esparru emozionalean. Gaur egungo konpainia handienek argi esango dizute: langileen arteko baliorik garrantzitsuenak pertsona arteko harremanetarako trebetasunak dira. Kontzeptu hori ardatz hartuta diseinatu genuen gure filosofia osoa. Gure ikasleek ikaskuntzan esanguratasun osoz parte hartu behar badute, beraientzat garrantzia izan behar du ikaskuntza horrek, kitzikagarria izan behar du; nor eta zer diren eta nor eta zer izan daitezkeen pentsatzen jartzen direnean, konfiantzaz jokatzeko eta positiboak izaten lagundu behar die. Haurrak beren osotasunean hezi nahi ditugu, eta ez dugu soilik lepo gainean duten horretan zentratu nahi.

**Grangen, ahalegin handia egin duzue ikaskuntza erreala izan dadin eta haurren munduarekin, esperientzie-**



### **kin eta interesekin konektatuta egon dadin. Nola lortu duzue hori?**

Bizitza erreala erreproduzitzen duten esperientziak sortuz. Haur txikienek asko ikasten dute, eta neurri batean rol-jokoetan buru-belarri sartzen direlako gertatzen da hori. Oso ikaskuntza aberatsa eragiten du horrek, esperientzien eta xedeen arloan. Gure eskolara ekarri dugu filosofia hori, gure proiektuaren bihotzera. Horrela, herri baten erreplika egin genuen, mikrogizarte bat soru genuen; eta, herri horretan, guztiaz arduratzen ziren gure haurrak: sistema politikoaz, kafetegiez, dendez, museoez, telebistako estudio batez edota irrati batez. Horrela, gaitasun nagusiak irakatsi ahal izan genizkien irakurketan eta idazketan nahiz aritmetikan, eta, berehala, gure ikasleek gaitasun horiek erabili ahal izan zituzten; horiek ikasita gauzak nola aldatu ziren ikusi zuten, eta ikaskuntza errealak egin ahal izan zituzten horrela.

### **Grange eskola hiri bilakatu zenuten. Eta, hiri horretan, gauza guztiak ikasleek kudeatzen dituzte. Zer-nolako aldaketa ekarri dio horrek guztiak eskolari, ikasleei eta irakasleei?**

Hiru dimentsioko ikasketa-ingurune bat ekarri zuen horrek, ingurune erreal bat. Ikasteko ingurune dinamikoa, zirrarragarria eta ahaltsua ekarri zuen.

### **Grange Unibertsitatea ere sortu zenuten, hainbat lantegirekin. Zertarako?**

Ikasleek esperientzia berriak probatzeko eta, horrez gain, bestela aurrez aurre izango ez zituzten eremuetan gaitasun berriak garatzeko aukera eman ahal izateko. Horrek, gainera, gure haurren heziketan buru-belarri sartuko zen komunitate oso batekin lan egiteko aukera eman zigun; besteak beste, gurasoak eta negozio-, arte- eta kirol-munduko elkarteak sartu ziren zeregin horretan. Komunitatea bateratzen lagundu zuen horrek, eta baita gure ikasleengan jarritako xede eta balioen zentzua indartzen ere.

**Grangen, garrantzi handia ematen**

### **diozue familien eta komunitatearen parte-hartzeari.**

Azkenean, ikasteko ingurune indartsu bat sortu behar duzu, eta horrexegatik sortu du horrenbesteko interesa Grange mundu osoan. Zer ezaugarri ditu ikasteko ingurune edo komunitate horrek? Zentzu horretan, bada afrikar esaera zahar bat: herri oso baten zeregina da haurra heztea. Uste dut inoiz baino garrantzitsuagoa dela hori gaur egun, eta, horregatik, iruditzen zait funtsezkoa dela zure komunitateko kide bakoitza haurren hezkuntzaren arduradun egitea. Haurren garapena 24 orduko zeregina da, eta, erronka horri aurre egiteko, ezinbestekoa da elkarrekin lan egitea.

### **Zer leku betetzen dute azterketek Grangen? Nola ebaluatzen dituzue ikasleak?**

Legeak horretara behartuta, gure ikasleek SAT azterketa nazionala egingo zutelara bermatu behar genuen, gainerako eskolek bezala, eta azterketak egitea gure kulturaren zati zen. Egiaz, gure emaitzak bikainak izatera iritsi ziren, baina egin genuena ez genuen egin emaitza horiengatik. Azterketak tresna bat dira, gure ikasleen aurrerabidea eta trebetasuna ulertzeko lagungarri den tresna bat. Askotan, eskolek pentsatzen dute haurrak azterketetarako prestatzea dela heztea. Eta ez da hala! Grangen, uste osoa eskaini genuen gure prozesuaren eta ikuspegiaren lanetara, jakinik ondo egiten bagenuen azterketetan beren kabuz aurrera egingo zutelara, gure ikasleak trebeak izango zirelako, motibatuta egongo zirelako, eta ikastun arrakastatsuak izango zirelako. Arrazoi genuen, gure igurikimen guztiak gainditu baitzituzten emaitzek.

### **Zer-nolako fruituak eman ditu Grange ereduak?**

Beren bizitzarekin gustura dauden ikasleek gustuko dute ikastea ere; esperientzia guztia dibertigarria iruditzen zaie, eta horren parte izan nahi dute.

**Urte gutxian, asko aldatu da gizartea, eta, beraz, asko aldatu dira hezkun-**

“Gure ikasleek beren muduan arrakasta izan dezaten, beste ezer baino lehen, adimentsuak izan behar dute esparru emozionalean”

“Hezitzaila garen neurrian, ez dugu baimenaren zain egon behar. Gure eskolen kontrola geure gain hartu behar dugu, eta gure ustez egin behar dena egin behar dugu. Munduko hezkuntza-sistema eta eskolarik dinamikoenak profesionalak zuzendu dituzte, ez politikoenak”

**tzak ase beharreko premiak ere. Eskolak, ordea, XIX. mendean bezala lan egiten jarraitzen duela diozu. Zer egin beharko luke eskolak gaur egungo gizartera egokitzeko?**

Lehendik daukagun sistema hori eraginkorrago egiteko ahalegina alde batera utzi behar dugu, eta jabetu behar dugu eredu horrek aldatu beharra duela, azterketen eta nota finioen obsesiotik urrunduz. PISA txostenaren egileak ere (OCDE) argi erakutsiko dizu: hezkuntza-sistemaren barnean benetako trebetasunetan baino kalifikazio formaletan obsesio handiagoa duen gazte jendeak zailtasun handiagoak aurkituko ditu lana aurkitzeko. Ikuspegi berri bat garatu behar dugu, pertsona bere osotasunean gararaziko duen ikuspegi berri bat, informazioa atxikitze gaitasunetik harago doazen trebetasun eta gaitasunak sustatuko dituen.

**Lehen, jakintzaren transmisioa zen eskolaren egiteko nagusia. Baina, orain, informazio guztia eskura dute ikasleek, eta, askotan, gehiago ikasten dute eskolatik kanpo ikastetxean bertan baino. Testuinguru konplexu horretan, zer erronka ditu hezkuntza-sistemak etorkizunari begira?**

Garrantzitsua izaten jarraitu behar du eskolak. Ikaskuntzarako hornitzaile eta bitartekari izan behar du. Oso kontuan izan behar dugu hezkuntzaren xede nagusia gizakiaren garapena dela. Garapenak gizakien arteko interakzio aberatsa du oinarri, eta giza harreman oparo horiek ezingo ditu inoiz sortu teknologiak. Garatzen laguntzen dien pertsonen definitu behar dute eskola, eta ez haien azterketetatik ateratako datuek.

**Hainbat adimenez, gaitasunetan oinarritutako hezkuntzaz, ikasketa kooperatiboaz edota talde-lanaz dihardute hezitzaileek; baina egiaz eskolak egiten al du ikaskuntza mota horiek sustatzeko beharrezkoa den ahalegina?**

Uste dut askotan eskolek ez dutela hori guztia erabat ulertu. Uste izan dute aldaketa jada egiten duten edo zeren gainean diseinatu daitekeela edota dagoeneko egiten den horren gaineko ekimen berriak direla aldake-

ta. Gainera, aldaketa horri dagozkion alderdi asko oso modu konplexuan erakutsi dira, eta horrek irakasle asko beldurtu egin ditu. Hezkuntzan, beste hainbat arlotan bezala, gehiegizko konplikazioak baztertu egin behar ditugu, eta gogoan izan behar dugu jendearekin ari garela lanean, eta ez teoriekin; hizketagai dugun honen guztiaren zati handi bat giza garapenearekin baitago lotuta.

**Zure ustez, ikasleek zer gaitasun eskuratu behar lituzkete eskolan gaur egun? Eta bakoitzaren gaitasunak sustatzeko, zer eskaini behar luke eskolak?**

Ikasleek konfiantza izan behar dute, pentsamendu kritikoa izan behar dute, eta komunikatzaile zorrotzak, kolaboratzaileak eta berritzaileak izan behar dute. Sortzaileak izan behar dute, jakin-nahia erakutsi behar dute, eta motibatuta egon behar dute. Areago, beren buruaren gidari izan behar dute. Irakaslea ahalduzko ideia oinarrian hartzen duten sistemak definitu eta babestu behar dituzte eskolek, eta ez kontrolaren ideian oinarritzen direnak.

**Nola presta ditzakegu gure ikasleak etorkizunerako, kontuan izanda imajinatu ere ezin ditugun beharrak izango dituztela etorkizuneko errealitate horretan?**

Ikasle horiek ez ditugu prestatu behar ideia edo kontzeptu finko batzuetan oinarrituta; aitzitik, ziur izan behar dugu egokitzeko gaitasuna dutela, gai direla ikasteko, desikasteko eta berriro ikasteko, aldaketa eta ziurgabetasuna onartzen dituztela eta ekintzaileak direla eta beren burua etengabe garatzeko gai. Sistema tradizionalak gure segurtasunaren bila irteteko trebatzen gaitu, baina, aurrera begira, jada ez da aukerarik izango horretarako.

**Eskolek kartzelen antz handiegia dutela diozu liburuan. Nolakoak izan behar lukete, ordea?**

Lotura estuagoa izan behar dute eskolek ahalduzuearekin, eta ez, horrenbeste, kontrolarekin. Jende askok beldurra die haurrei, eta zaldi basatien pare hartzen dituzte:

mendean hartu eta hezi beharreko animaliak balira bezala. Beldurgarria da benetan!

**Irakasleek zer rol jokatu behar lukete zuek babesten duzun eredu horretan?**

Ikaskuntzarako artekari eta bideratzaile izan behar dute irakasleek, ez ikasgelaren aurrean jarrita besterik gabe jakintza transmititzeko zeregina betetzen duten adituak.

**Etengabeko hezkuntza-erreformen aroan bizi gara. Zer egin dezake lurralde bakoitzeko administrazioak hezkuntza egonkortzeko?**

Beren ikuspegi eta balioen gaineko kontrola izan behar dute. Erreforme beren sistemaren betaurrekoen bidez begiratu behar diete. Hezitzaile garen neurrian, ez dugu baimenaren zain egon behar. Gure eskolen kontrola geure gain hartu behar dugu, eta gure ustez egin behar dena egin behar dugu. Munduko hezkuntza-sistema eta eskolarik dinamikoak profesionalek zuzendu dituzte, ez politikoez.

**PISA azterketen aurka zaude. Esan dezakezu zergatik?**

Bat-bateko argazki mugatu bat da PISA, akastuna. Txostena nahiko interesgarria da, egia esan, baina komunikabideek eta politikoez sailkapenei erreparatzen diete soilik. Hasteko, ez herrialdeak, ez haurrak ezin dira definitu azterketen bidez, testuinguruaren arabera desberdintasun handiak baitituzte herrialdeek. Finlandia, esate baterako, txikia da, eta sozialki nahiko laua; ez dauka halako gorabeherarik geografikoki, edo Estatu Batuek eta beste hainbat herrialdek besteko hedadura sozioekonomikorik. Txinan, esaterako, familiek haur bakarra dute etxeko, eta kultura bakarrek inguruneak dira nagusi. Ez dira horrelako faktoreak kontuan hartzen, soilik datu gordinak eta emaitzak aurkezten ditugunean. Futbol ligako sailkapen bat balitz bezala erabiltzen da PISA txostena, baina herrialde bakoitzak bere jokoa arauak ditu.

**Nolakoak izan behar luke ikasle bakoitzaren ebaluazioak?**

Beren eskola-gaitasunak ez ezik, be-





ren garapen-trebetasunak, portaerak, asmoak eta balioak ebaluatu behar genituzke. Arazoa zera da, oraingoz: aztertzeke errazenak diren alderdiak neurtzen ditugu soilik, eta ez ditugu alderdi garrantzitsuenak balioesten. Tresna sorta bat erabili behar genuke zeregin horretarako, behaketak, hizketaldiak, elkarrizketak eta lankideen arteko eztabaiak barnean hartuta; haurra osotasunean hartuko duen irudi garbi bat eraikitzen dugula ziurtatzeko tresna sorta bat.

**Nondik eta nola hasi behar genuke XXI. mendeko eskola bat diseinatzeko?**

XXI. mendean pentsatzeari utzi behar diogu lehenengo! Mende horren bigarren hamarkadan aurrera goaz, eta, gainera, gaur egun jaiotzen diren haurrak XXII. mendean ere biziko dira. Hezkuntza berrikusten hasi behar dugu, eta geure buruari galdetu behar diogu zer-nolakoak izan beharko duten gure hurrek etengabe aldatzen ari den mundu horretan, ziurgabetasun horretan. Hortik abiatuta, sistema bat eraikiko dugu.

**Haurren sormena, segurtasuna, gozamina, dibertsioa eta pertsonalizazioa goraipatzen dituzu ikasketaprozesuak diseinatzerakoan. Zergatik?**

Konfiantzaz jokatzen duten haur zoriontsu eta seguruak direlako ikasle onenak, eta atsegina emango dien bizitza izateko aukera gehienak ere horietatik izango dituztelako.

**Zuk diozu hezkuntzak "rock and roll" berria izan behar lukeela, Disney World bezain liluragarria. Nola lor dezakete horrelakorik eskolek eta irakasleek?**

Haurrak suspertuko eta zirikatuko dituen giroak sortzean jarriz arreta; toki eta espazio horietan, ahalmen handiagoa dutela sentitu behar dute, eta ez direla beren kontrolerako toki eta espazioak. Elkar errespetatu eta elkarrekin konfiantza izanez eraiki behar lirateke eskolak. Areago, go-goan izan behar dugu haurrak direla gure lehen bezeroak, eta guk saldu nahi duguna erosten ez badute, huts egingo dugula!

**“Beren eskola-gaitasuna ez ezik, beren garapen-trebetasunak, portaerak, asmoak eta balioak ebaluatu behar genituzke. Arazoa zera da oraingoz: aztertzeke errazenak diren alderdiak neurtzen ditugu soilik, eta ez ditugu alderdi garrantzitsuenak balioesten”**

# ESPERIENTZIAK

PI DEL SOLDAT

## Familiak ikasgelaren parte direnean

Bartzelonako San Pol de Mar herrian, umeez ez ezik, familia osoek hasi dute 2015-2016 ikasturtea, Pi del Soldat udal haur-eskolan. Ikasgelako egunerokoaren parte izango dira uztaila bitartean haurrak nahiz horien gurasoak, aitona-amonak eta, oro har, gertuko pertsonak. Horrela, eraldatu egin nahi dute udal haur-eskolaren proiektu hezitzailea, “pertsonekin batera, eta ez pertsonentzat”.

**E**sku artean duen oparia partekatu nahi izan zuen Rocio Galindok, Bartzelonako San Pol de Mar herriko Pi del Soldat udal haur-eskolaren zuzendariak, Hik Hasik 0 urtetik 3ra bitarteko haurren hezitzaileentzat antolatutako prestakuntza-zikloan. Izan ere, halaxe definitu zuen, opari gisa, haur-eskolaren proiektu hezitzailea eraldatzeko prozesua bizitzeko eta gidatzeko aukera: “Eskola publiko batean eta beharrezko duen udalaren babes politikoa izanda horrelako autoerlaldatze-prozesu bat abiatzea..., bizitzak eman digun opari bat da hori”.

Hain zuzen, eraldatze-prozesu kontzeptuari “auto” gehitu dio Galindok, barrutik ari baitira haur-eskolaren heziketa-proiektua alda-



**“Esperimentatu egin behar da, humiltasunez, gauzak lehen aldiz ari zarela egiten onartuta eta zure jarduna etengabe errebisatzeko jarrerarekin”**

**Rocio Galindo**

tzen; alegia, lantaldetik edo, bestela esanda, pertsonengandik abiatuta, eta pertsonekin. Izan ere, “oso desberdina da gauzak norbaitekin egitea edo norbaitentzat egitea. Norbaitentzat ari zarenean, halako hierarkia bat sortzen da: nik erabakitzen dut zer den zuretzat onena. Aldiz, bidea hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonekin batera egitea proposatzen dugu guk: elkarrekin erabakitzea norabidea, bidegurutzeetan denon artean hautatzea zein den jarraitu nahi dugun bidea...”.

### **Erreferentzia inspiratzaileetatik nortasuna eraikitzen**

2014. urtearen hasieran sendotu zen Pi del Soldaten eraldatze-prozesua, Rocio Galindok haur-eskolaren zuzendaritza hartzean; baina aurrez hasia zuten bidea hango hezitzaileek. Haur-eskola tradizional honek Iruñeko haur-eskoletako esperientzien berri izan zuen, eta, hari horretatik tiraka, Loris Malaguzzik Italiako Reggio Emilia eskualdean garatutako esperientzia pedagogikoak ezagutu zituen, bai eta Emmi Piklerrek Hungarian garaturiko bidea ere. Ezagutu ez ezik, haien irakaspenak beraien eguneroko jardunean txertatzen ere saiatu ziren, baina metodologia soil gisa hartuta: “erreproduzitzera mugatzen ziren”, beti urrats berdinak eginez.

Prozesuaren une horretan hartu zuen haur-eskolaren gidaritza Galindok, eta, zerbait zinez berritzailea egiteko eta “forma berri batera eramango gintuen eraldaketa hasteko”, galdera sakonak egiteko beharra jarri





Gurasoak eskolako dinamikaren parte dira, baina haurrak bere autonomia garatzeko egiten duen bidean ez esku hartzen ikasten dute.

zuen mahaigainean: “Nortasun berri bat eraikitzeko, gauza berritzaileak egiteko, galdera berriak egin behar dizkiozu zeure buruari”.

Eta galdera sakon eta berri horietako bat jarri zuen irakasle taldearen erdigunean: benetan zintzoak al ziren ustez inspiratzen zituzten pertsonetikiko eta ideiekiko? Izan ere, “edozein ikas-tetxetako proiektu pedagogikoa hartu, eta zaila da maila teorikoan ados ez egotea; baina zehazteko eta gauzatzeko orduan ikusten da inspiratzen zaituen pedagogia horretatik gertu edo urrun zauden”, dio Galindok. Beraz, Pi del Soldaten jarduna bat zetorren Piklerrek eta Malaguzzik sustatutako printzipioekin? Galdera horri erantzutean, zalantzak sortu ziren ea familiek eta, oro har, hezkuntza-komunitateak eskolan izan beharreko presentzia eta parte-hartzea erreferentzia inspiratzaile horiek proposatutakoak bezainbeste ote ziren.

### Familia ikasgelan sartzen da

Galindok bere ibilbidean ezagututako hainbat haur-eskolatan, haurra ekartzen zuten unera mugatzen zen gurasoen parte-hartzea eskolan, “eta, egiazki, besoetatik kendu behar izaten genien haurra gurasoei; izugarria

zen”. Hasiak ziren pauso batzuk ematen Pi del Soldaten, egin nahi zuen aldaketaren bidean, eta 10:00ak bitartean haurra ikasgelaraino ekartzen eta sartzen uzten zieten gurasoei. Ordu horretatik aurrera, ordea, hezitzaile bat izaten zuten zain haur-eskolaren atean; hark hartzen zuen haurra, ikasgelaraino laguntzeko. Gurasoak haur-eskolaren atean gelditzen ziren 10:00etatik aurrera.

“Iristean, galdetu nien: eta hori, zergatik? Zergatik etor daitezke 10:00ak arte? Zergatik sentitzen duzue muga bat jarri behar zaiola gurasoek eskolan duten presentziari?” Izan ere, Reggio Emiliako esperientziak inspiraziotzat hartuz gero, eskolak familien parte-hartzea edo presentzia sustatu ohi du horietan. Bada, lantaldean galdera horiek egitean, “kontu interesgarriak” agertu ziren: batzuen ustez, familiek “oztopatu” egiten zuten ikasgelako dinamika; beste batzuentzat, “familiek egitura bat, beraien leku definitua” behar zuten ikastetxearen baitan... Beste batzuek honako hau esan zioten Galindori zuzenean: “Ez diegu mugarik gabe irekiko eskola gurasoei”.

Galindoren ustez, ohikoak dira erreakzio horiek galdera berritzaileen aurrean, “ezagutzen duenaren aurrean

bakarrik irekitzen baita gure burua. Gure garunak sortuak ditu eskema mental batzuk, eta segurtasuna ematen diote horiek”. Horregatik, lantaldeari beraien garunen erreakzio arrunt baten aurrean zeudela ulertaraztea izan da Galindoren lana, erresistentzia horiek arruntak zirela sentiaraztea, eta horiei aurre egitea, berriz, posible dela ikusaraztea.

Denbora behar zutela ulertuta, lantaldearekin gaia lantzen jarraitu zuen, eta haien kezkek jasotzeari ekin zion. Zerk arduratzen zituen galdetu zitzaienean, hezitzaileen kezka nagusia hauxe zela ikusi zuten: “Ez badiegu mugarik jartzen, zenbait guraso egun guztirako geldituko dira eskolan, eta behatuta sentituko naiz nire lanean”. Bada, beste galdera sakon batekin erantzun zien Galindok: “Zergatik arduratzen zaituzte gurasoek zuen lanari behatzeak? Seguru al zaudete egiten duzuen lanaz? Zerbait hobetu behar al dugu gure jardunean, lanean ari garenean gurasoen aurrean eroso sentitzeko?”.

Kezkak eta beldurrak landu eta guztien artean partekatu ondoren, “ekin-tzarako ordua” iritsi zen: “Ezin genuen plano mental batean gelditu, beldurrak horixe baitziren, mentalak.



Gauzak probatu egin behar dira, esperimentatu. Umiltasunez, lehen aldiz egiten ari zarela onartuta, eta zure jarduna behin eta berriz berrikusteko jarrerarekin”.

Gauzak horrela, ikasturteari berrietasun batekin heldu zioten 2014ko irailean: aurrerantzean, familiak nahi zutenean sartuko ziren haur-eskolan, eta nahi beste denboraz gera zitezkeen.

### **Egokitzapenik ez, familiarizazioa baizik**

Aldaketak bete-bete eragin zien ikasturte hartan haur-eskolan lehen ikasturtea hastekoak ziren haurrei eta haien familiei. Izan ere, ordu arte, egokitzapen-fasea deiturikoa pasatu behar izaten zuten Pi del Soldat haur-eskolan hasitako haurrek lehen ikasturtean. Izenak berak adierazten duen moduan, haurrak errealitate berri batera egokitzeko edo moldatzeko prozesua litzateke hori, “eta halaxe da zinez: gauzek forma bat dute, eta haurrak forma hori hartu behar du, forma horretara moldatu bere burua”.

Egokitzapen-prozesu hori gurasoei azaltzeko erabili ohi zuten aurkezpen-txostena erakutsi zien Galindok Hik Hasiren prestakuntza-zikloko parte-hartzaileei. Aurkezpen horretan, ohikoak ziren haurrak negarrez agertzen diren argazkiak, bai eta negarra gainditu behar dutela zioten mezuak ere haien ondoan. Gainera,

aurkezpen osoan zehar, hezitzaileak ziren mezu horien igorleak. Baina, “ustez pertsonengan oinarritzen den ikastetxe bat baldin bagara, ezin dugu besteen ahotik hitz egin, kasu honetan haurren ahotik; adierazten utzi behar diegu. Eta, argazki horietan, haurrak beraien bizipena adierazten ari ziren negarraren bidez”.

Aurreko dinamika horri kontrajarrita, 2014ko irailetik abian duten prozedura ilustratzen duten argazkiak erakutsi zituen Galindok prestakuntza-saioan: haurrak lasai, jolasti eta irribarretsu daude ikasgelan, beraien senitartekoak gelako txokoren batean begira dituztelarik. Ez negarrik, ez negarra gutxiesteko mezurik. Familiak ere ikasgelaren parte dira prozedura horretan, beraz, eta abian jarritako prozedura horri familiarizazio-prozesu deitu diote.

### **Gurasoak: ikasgelan egoten ikasten**

Baina, hezitzaileen kezka eta beldurrak aintzat harturik, hainbat gomendio ematen dizkiete ikasgelaren parte izango diren senitarteko horiei. Hasteko, helduek ez dezaten erabat har haurrena den espazio hori, ume bakoitzeko heldu bakarra etor daiteke ikasgelara egunean, salbuespenak salbuespen; heldu hori gurasoetako bat, aitona edo amona eta, oro har, haurraren gertuko edonor izan daiteke. Heldu horrek ezin du izan ikasgelan mugikorrik piztuta, eta ezin

du egunkaria irakurtzen egon ere: umeekin aktiboki egotea da heldu horien egitekoa. Hori bai, haien presentzia garrantzitsua bada ere, umearen martxan ez sartzeko eskatzen diete: alegia, ez dute umea jolastera edo lagunekin jolastera animatu behar... Umearen erritmoa errespetatzeko eta une bakoitzean behar dutena egiten eta adierazten uzteko eskatzen diete hezitzaileek umearen gertuko heldu horiei. “Ez da askorik hitz egin behar. Haurrentzat inportantea da heldu hori presente egotea, irribarre batekin eta begirada samur batekin”.

Bestalde, heldu horrek haurraren inguruan duen kezka bat argitu nahi badu hezitzailearekin, bilera bat eskatu behar du, eta ikasgelatik kanpo egingo da bilera hori: ikasgela haurren espazioa da, eta errespetatu egin behar da. Bestetik, haurrek eta gurasoek eskola osoan zehar ibiltzeko aukera izango dute: ez dute beraien presentzia ikasgelara zertan mugatu, eskola osoa komunitate guztiarena baita, eta, beraz, baita beraiena ere.

Zaintzarekin loturiko uneak ere hartu dituzte aintzat gomendioak egiterakoan. Adibidez, umeari pixoihala aldatu behar bazaio eta haur horren gertuko heldua une horretan ikasgelan baldin badago, hezitzaileek heldu horri utziko diote pixoihala aldatzen; dena dela, beraiak ere gertu egongo dira, pixkanaka haurrentzat intimoak eta babeseakoak diren une horietan parte hartzen hasteko. Jatorduei dagokienez, helduek aukera dute jangelan gelditzeko, baina, ikasgelan bezala, haurrari espazioa eman eta jatera animatu edo behartu gabe.

Azkenik, gurasoei eskatzen diete sekula ez alde egiteko haurrari agur esan gabe, umeak pixkanaka ulertu egingo baitu laster itzuliko direla. Eta, haurrak negar eginez gero, errespetatu egingo da haurraren negarra, haurrak komunikatzeko duen baliabide gisa ulertuta.

Galindoren esanetan, beharrezkoak dituzte gurasoek gomendio edo jarraibide horiek. Izan ere, oso zaila egin ohi zaie haurraren distantziari eustea, eta beraien rola zein den azaldu egin behar zaiela uste du: “Gelan jarraibideak ez direla betetzen ikusiz gero, naturaltasunez eta maitasunez



azaltzen diegu”. Ildo horretatik, gurasoek, behaketarako posizio horretan jartzean, beraien haurra “beste modu batera ikusteko” aukera dute, eta asko ikasten dute haurrari, beraiei eta beraien arteko harremanari buruz.

Horren erakusgarri, familiarizazio-prozesu horretan parte hartu duten gurasoekin osaturiko bideoa jarri du Galindok. Bideo horretan ikusten denez, haurraren eta gurasoen arteko lehen banaketa izan ohi den hori “modu natural” batean bizitzeko aukera eskertzen dute gurasoek, “drama, oihu eta negarrik gabe. Jada ez da zerbait traumatikoa”. Hainbat gurasok laneko atsedeen-tarteak baliatzen dituzte haurra bisitatzeko, edo, lehen egunetan, haurrak behar duen denboraz gelditzen dira, haurrarekiko banaketa lehenbailehen egiteko presiorik gabe.

#### Komunitate-sena sortzen

Baina, familiak ez ezik, hasieran erresistentziak agertu zituen hezitzaile talde hura ere gustura dago gaur egun familiarizazio-prozesu deitu diogun horrekin. “Orain ‘hara zer aldea!’ esaten didate, beraientzat ere samurragoa delako gelako giroa”, dio Galindok. Gainera, ikasgelan dauden helduak ez dira beraien haurrez soilik arduratzen, gainerakoekin ere laguntzen diete hezitzaileei; eta, beraz, familiak ikasgelan izatea laguntza ere bilakatu da haientzat. “Gurasoen artean, hezitzaileen eta gurasoen artean, haurren eta beste haurren gurasoen artean..., estuagoak dira harremanak orain. Talde- edo komunitate-sena indartu egin da”.

Hala ere, erresistentziak ez dira erabat gairitu. Hezitzaile batzuek oraindik “kaos sentazioa izaten dute. Baina egoera da kaosa, edo beraien baitan sentitzen dutena? Izan ere, askok beraien eremua izan denaren gaineko kontrola galtzen ari direla sentitzen dute, eta hortik dator kaos sentipena. Baina hau ez da inoren eremua; hau eskola publiko bat da”. Ildo horretatik, “haurren laguntzaile izatetik familien laguntzaile” izatera igarotzeko eraldatze-prozesuarekin jarraitu nahi du Galindok, urratsez urrats, familiekin harremanak “naturaltasunetik eta maitasun handiz eraikiz”.



Irakasleekin lehen harremana etxean bertan egiten du haurrak.

## Familiak, hezkuntza-komunitatearen parte ikasturtea hasi aurretik

Ikasturtea hasi aurretik bilakatzen dira familiak hezkuntza-komunitateko kide, Pidel Soldat udal haur-eskolan. Lehen ikasturtea hasi aurreko uztailan, haur-eskola bisitatzeko eta hezitzaileak nahiz gainerako haur eta gurasoak ezagutzeko aukera izaten dute, guraso berrientzako bilera antolatzen baita. Bilera horretan, bestalde, familiarizazio-prozesua egin nahi dutenentzako jarraibideak eta gomendioak aurkezten dizkie haur-eskolak gurasoei. Eta, familiaren batek, lan-arrazoiak edo bestelakoak tarteko, ezin badu ikasgelan presentzia aktiboa izan ikasturtean zehar, hezitzaileen zaintza bermatuta izango dutela adierazten zaie; “kulpa-sentimendua izaten dute egon ezin dutelako, eta hori kentzen saiatzen gara”.

Horrekin batera, haur-eskolak ere bisitatzeko lehen ikasturtea hastear duten haurrak, beraien etxean bertan. Izan ere, “familiekin zubiak eraiki nahi ditugu, baina beti beraiei eskatzen diegu eskolara joateko”. Horregatik, opari bat besapean hartuta, hezitzaileek beren zaintzapean izango dituzten haurrak beren etxeetan bisitatzeko dituzte uztailan zehar: “Ez ote da umearentzat hobea ezezaguna zaion zaintzaile horrekin lehen kontaktua bere etxean egitea?”, galdetu du Galindok. Gainera, haurra garatzen ari den eremuan bertan ikusteko aukera du horrela hezitzaileak, eta informazio baliagarria eskuratzen du.



# EKARPENAK 1

FORMAZIOA KIROL HEZITZAILEAN

---

## Kirol hezitzailean formatzea beharrezkoa da? Zergatik? Zertarako?

Ikasturte honetan aditu-ikastaro bat prestatu dugu “Kirol-hezitzailea” deitzen dena, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateak, hain zuzen, eta Athlon erakundeak bultzatuta, urtarrila-ekaina bitartean. Zergatik? Nondik dator formatzeko beharra?

**E**z da azaldu behar gaur egun gure gizartean kirolak eta jarduera fisikoak daukaten garrantzia fenomeno kultural, ekonomiko, politiko... moduan. Alde batetik gero eta kontzienteago gara zein onuragarriak diren gure bizitzan, eta gero eta presenteago daude gure egunerokotasunean; beste alde batetik, kirol batzuk momentu oro daude lehenengo planoan komunikabi-deetan eta gizarteak gorputzaren inguruan zabaldu dituen irudia eta exijentziak hainbat lekutatik heltzen zaizkigu.

Bigarren alderdi horrek indar handia dauka: elite kirolak, errendimenduari begirako kirolak eta kirol kompetitiboak jarduera fisiko guztiak ziprztintzen dituzte gaur egun, baita hezkuntza esparruan egiten direnak ere, askotan hezitzaileak beraiek konturatu gabe.

**Amelia Barquín eta Izaskun Uribesalgo**

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko irakasleak

Hezkuntza fisikoko irakasle, eskola kiroleko irakasle, aisialdiko begirale... Zein da zure ikuspegia? Zernolako jarduerak egiten dituzu zure ikasleekin edo zure taldearekin? Zer ikuskera dago haien atzean? Denen garapena bultzatzen da zure taldean eta denak sentitzen dira taldearen parte edo errendimendu motore altuagoa eman ahal dutenak soilik eta batez ere? Zein beste alternatiba daude?

Hausnarketaz harago, tresnak eta baliabideak behar ditugu egunerokotasuna eraldatzeko eta gure praktika gure ikuspegi hezitzailearekin koherentea izateko. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak berariaz hezitzaile eta esanguratsu bihurtu behar ditugu, ahaztu gabe kirol esparruan ere ikasle konpetenteak formatu behar ditugula.

### **Hezkuntza inklusiboaren ikuspegia**

Hezkuntzaren munduan hori da hain zuzen aldarrikatzen dugun ikuspegia: kirola eta jarduera fisikoa pertsona guztientzat da onuragarria, denen ongizaterako tresna da eta denen garapen integralerako tresna, berdin zeintzuk diren norberaren ezaugarriak, eta, aldi berean, ezaugarri horiek oso kontuan izanda. Izan ere, pertsona guztiak desberdinak diren kontzientziatik abiatuta, hezitzaileok gurekin jarduera fisikoa egiten duten ume, gazte eta heldu bakoitzaren ezaugarriak, premiak eta egoerak kontuan hartzen ditugu.

Esan berri duguna oso ezaguna da



teoria mailan eta gure diskurtsora heldu da, baina gure eguneroko praktika nolakoa da? Zein estrategia erabil daitezke hezitzaileok kudeatzen ditugun saioetan, hori horrela izan dadin? Unea da azkeneko urteotan kirolaren didaktikaren arloan garatu den jakintza baliatzeko eta jarduera berritzaileak proposatu eta gauzatzeko.

### Gizarte kohesiorako tresna

Maila pertsonalean aritzeaz gain, maila soziala oso kontuan hartu nahiko genuke. Kirola tresna eraginkorra da gizarte-dinamizazioarekin eta gizarte-berrikuntzarekin lotuta, baldin eta helburu hori kontuan hartzen badugu diseinatzen eta burutzen ditugun jardueretan.

Adibide argi bat kulturartekotasuna da: beste herrialde batzuetatik etorritako ume, gazte eta heldu berrien integrazioari begira jarduera fisikoak beste herritarrekin elkarrekintzarako aukera paregabea ematen du, are bertako hizkuntzak ondo jakin gabe, eta ezaguera eta eskarmentu desberdina daukatenean artean elkarbizitza sustatzeko parada ere eskaintzen du. Parte hartzaileen arteko harremana, onarpena eta errekonozimendua sustatzen dira. Generoa eta aniztasun afektibo-sexualaren inguruan asko dago egiteko eta garaia da kirola eta jarduera fisikoaren esparruan aurrerapauso sendoak emateko.

Aldi berean badakigu aisialdiko

jardueretan eta eskola kirolaren arloan zein ahalegin interesgarriak egin diren euskara sustatzeko eta parte-hartzaileei erabiltzeko aukerak emateko. Esperientzia horietatik asko ikasi ahal dugu eta ezaguera hori gure jarduera hezitzailean baliatu. Integrazioa, genero-trataera, euskararen normalizazioa, bizikidetzeta, gatazkarren kudeaketa, frustrazioa eta garaipenaren kudeaketa... gako-hitzak dira. Horretarako taldeen kudeaketan eta dinamizazioan trebatzea ezinbestekoa da.

Aukera dagoenean, komunitatearen baliabideak detektatzea eta erabiltzea eta sare lana egitea izango da gure lanaren beste helburu bat. Aniztasunaren trataera da, maila pertsonalean nahiz sozialean, kirol hezitzailearen ardatza; aipatutako alderdiei arreta jartzen badiegu gure egunerokotasunean, balio erantsi handia ekarriko du gure ahaleginak.

### Alderdi garrantzitsu batzuk

Hezitzailea “profesional gogoetsua” izatea garrantzitsua da (gaztelaniaz *profesional reflexivo* deitzen dena). Zer da? Etengabe ikasten duen profesionala eta bere jardueran etengabe berrikuntzak aplikatzen dituena. Zertan datza prozesua? Norberaren jardueraren kontzientzia hartzea, jarduera propioa analizatzeko tresnak erabiltzea eta, birdiseinatze teknikaren bidez, praktikan aldatetako eta hobekuntzak txertatzea. Eta zikloa

jarraritzea, zeren prozesu gogoetsua etengabe gertatzen da.

Beste alde batetik, kontuan izan behar dugu kirol hezitzailea ez dela izango kirola eta jarduera fisiko egiten dutenen “irakaslea” soilik. “Aholkulari” ere izatea garrantzitsua da: alegia, berak dakiena bere erakundearen zerbitzura jartzea (ikas-tetxean, eskola kirolean, federazioan, udaletxean...). Hori modu eraginkorrean egiteko tresnak ezagutzea eta aplikatzea ezinbestekoa da.

### Jarduera profesionalizatzeko

Aurreko guztia dago jasota *Kirol Hezitzailea* aditu ikastaroan. Nola garatuko da? Parte-hartzaileak saio presentzialak izango ditu astean behin urtarrietik ekainera, aritu eta aditu batzuk etorriko dira esperientziak partekatzerako, praktikaldi bat egingo da erakunde batean, proiektu bat egingo da erakunde horrekin lotuta... Mondragon Unibertsitatearen webgunean informazio osoa aurkitu daiteke.

Ohar garrantzitsua bat: aurreko lerroetan aipatutakoari buruzko eza-gutza pertsona profesionalizatzeko tresna izango da. Ziur aski irakurlea konturatu da tresna hori ez dela soilik orain arte esparru horretan lan egin ez dutenentzat eta etorkizunean bertan aritu nahi dutenentzat; dagoeneko lanean dihardutenek ere merezi dute haien jarduera analizatzeko eta aberrasteko aukera.

# EKARPENAK 2

ETXEA ERAIKITZEKO PROIEKTUA

---

## Gure etxea buruan eta ibili munduan

Ikasturte berria hasi aurretik, 3 urteko gelako bi maisuok konturatu ginen etxetxo bat behar genuela “Etxe txokoa” osatzeko. Behar hau asetzeko, etxeari buruzko sekuentzia didaktiko bat egitea erabaki genuen, Haur Hezkuntzako etapa guztia gurekin eginen zuen etxe bat eraikitzea izanen zelarik sekuentzia honen azken xedea.

**L**ehen urratsa, etxea zerekin eraiki behar genuen erabakitzea izan zen; esne kutxak erabiltzea izan zen irakasleonen hautua. Gela bakoitzak 600 esne kutxatik gora beharko genituela kalkulatu genuen eta hauek lortzeko bi geletako gurasoen lankidetzaz ezinbestekoa izan zen. Ikasleek zertarako ziren jakin gabe ekartzen zizkiguten esne kutxak eta txundituta gelditzen ziren euren ekarpenekin geroz eta handiagoa zen armairu gaineko dorreari begira. Honela, ikasturteko lehen hiruhilekoa amaitu aurretik lortu genituen beharrezko esne kutxa guztiak, denak ala denak

**Mikel  
Auzmendi  
eta Iban Sáez**

Deustuko  
Ikastolako  
irakasleak

ongi garbituta gainera, ongi garbitu ezean sekulako kiratsa darie eta.

Hurrengo pausoa, hurrei etxe bat eraiki nahi ote zuten galdetzea izan zen. Ezetz esan izan baligute, ez dakit zer egin izanen genukeen hainbeste esne kutxarekin.....baina hasieratik oso motibagarria izan zen ideia eurentzat; euren eskuekin eginiko etxetxo bat, eurek Haur Hezkuntza guztian jolasteko! Beraz, erantzuna, baiezko ozen eta gogotsu bat izan zen.

Ikasleen baiezkoa eskuratuta, sekuentzia didaktiko bat burutzen hasi ginen etxe bat eraikitzeke jakin beharreko guztiak ikasteko asmoz, baina etxeak eraikitzen hasi aurretik, etxeei buruz genituen ezagutzak gure artean partekatu genituen korroan; etxeen zati ezberdinak zerrendatu genituen, tximinia, leihoa edota horma esaterako, tamaina eta forma aldetik ezberdinak diren etxeak daudela esan genuen eta baita etxe bakoitzean gela ezberdinak daudela ere. Azken hari honi tiraka, etxeke gela bakoitzaren funtzioak aipatu genituen eta gela ezberdinak izendatu. Afera honekin saio batzuk eman genituen, bai korroan eta baita txokoetan ere, ezagutzak barneratuz eta finkatuz.

Etxearen ideia orokorrak barneratu ostean, eraikuntzaren gaiari heldu genion eta segituan topatu genuen lehen arazoa; norbaitek ba al daki horma





bat eraikitzen? Zerekin eraikitzen dira hormak? Korroan bi galdera hauei erantzun eta irtenbide ezberdinak planteatu zitzaizkien; hormak adreiluz egiten zirela nahiko erraz onartu genuen guztiok, baita adreiluak euren artean *pegamentuz* itsasten direla ere. *Pegamentu* hori zer zen, ordea, ez genuen batere argi.

Arazo hau konpontzeko biderik eraginkorra espermentazioa zela ebatzi genuen eta horrela, horma bat egiteko beharrezko guztiak ekarri genituen gelara; zementua, ura, plaunkaia, adreiluak... eta arratsalde euritsu batean, 9 adreiluz osatutako horma eraiki genuen guztion artean, baita zarpiatu ere. Egund batzuetan masa lehortzen utzi ostean, hormaren gogortasuna probatu genuen *ostikadaxoak* emanenez... eta zutik mantendu zen!

Benetako hormak eraikitzen ikasi ostean, gure etxea zerekin egingo genuen planteatu genuen; batzuek, egur zatiak aipatu zituzten eta beste

batzuek, benetako adreiluak. Gelan geneukan zerbaitekin moldatu beharko genuela ohartarazi genien ikasleei, eta gelatik bueltara ibili ziren arren, ez zuten esne kutzak pilatuta genituen armairuetara begiratzen, edota, ez zuten bertan baleko “adreilurik” ikusten. Guk nahi baino pista gehiago eman ondoren, hainbati heldu zitzaion ideia aldi berean; esne kutzak!

Idea hori aho batez onartuta, *adreiluak* itsasteko *masa* zein izan zitekeen galdetu genien; gehienek gelan ohikoa dugun kola zuriaren alde egin zuten, baina ongi atera ez zen proba bat egin ostean, ideia baztertu genuen. Arazo honen irtenbidea guk eman genien, pistola termofusiblea erakutsi genienean. Denak zoro moduan aztoratu ziren, adin hauetan pistolek duten arrakastaren ondorioz.

Lehengaiak bagenituen, beraz. Hurrengo buruhaustea azkar azaldu zen ordea korroan; “ikasturte hau aste gutxi barru amaituko da eta heldu den ikasturtean ez gara gela honetan

egonen, pasabidean aurrera jarraituaz dagoen beste batean baizik. Etxea amaitzen dugunean gela berrira eramanen dugu, ezta? Bai! Nola eraman-go dugu?”

Galdera honi erantzun zelebre batzuk eman zizkieten; batzuen ustez, hoberena leihotik ateratzea zen; beste batzuek komunetik pasata (gelen artean dago) ateratzea nahiago zuten. Apurtxo bat gehiago pentsatu ostean, atetik ateratzea zela irtenbiderik egokiena pentsatu genuen. Hau erabakita, hurrengo galdera atetik ateratzeko kontuan izan beharrekoak zeintzuk ziren izan zen. Erantzunen artean, *neurtu* hitza atera zen eta honi heldu genien; hainbat denbora eta makina bat adibide erabili genituen batzuentzat ezaguna zen kontzeptua ikasle guztiei helarazteko eta hau erdietsi eta gero, hurrengo galdera heldu zen; “zer erabiliko dugu neurtzeko?” Hamaika erantzun izan zituen galderak, eta hauen artean norbaitek esne kutzak aipatu zituen; beraz, esan





eta egin; atearen zabalera eta altuera neurtzera joan ginen geure esne kutxekin. Neurketa egin eta korrora itzuli ginenean, beste galdera bat suertatu zitzaigun: atek nolakoa izan behar du? Gelako neska-mutikorik altuena baino altuagoa izan behar zela erabaki genuen, bestela honek ezingo baitzuen sartu, eta hala, gelako pertsona altuena zein zen aztertzeraz jo genuen eta hau jakin ostean, pertsona hau esne kutxekin neurtu genuen.

Jadanik bagenituen gure etxearen neurriak, bai zabalera, bai altuera eta baita atearen altuera ere.

Hurrengo saio batean taldeka banatu eta talde bakoitzari hainbat esne kutxa eman genizkion, eta horma bat eraiki zezaten eskatu. Denbora tarte bat pasa ostean, talde bakar batek lortu zuen horma bat eraikitzea, beste taldeetan bakoitzak berea egiteari ekin zionez, lauzpabost esne kutxaz osatutako dorreak eraikitzea lortu zuten soilik. Korroan bueltan, banaka ezin genuela deus ere egin eta talde lanaren garrantziaz ohartu ginen, eta hau horrela, etxea denon artean eraiki beharko genuela erabaki.

Etxeko gela ezberdinekin gertatu bezala, arazo hauek guztiak konpontzeko eta euren bidez ikasitako kontzeptu guztiak finkatzeko, hainbat korro eta txoko saio erabili genituen.

Aurrekari guztiak amaituta genituenez, heldu zen etxea eraikitzen hasteko eguna, eta pixkanaka-pixkanaka, ikasle bakoitzak bere ahalegina eginez, hormak gorantz egiten hasi ziren. Egun batzuk igaro ostean, leihoak irekitzen hasi ginen, eta hemen beste arazo batekin egin genuen topo: nola itxi dezakegu leihoa goitik, hormarekin jarraitzeko?

Hainbat ikaslek burutazio bera izan zuen arazo honen aurrean; leihoaren zabalera baino zabalagoa zen esne kutxa bat lortu behar genuen. Baina nola? Ikasleen ahaleginari gure bultzadaxko txiki bat gehituta lortu genuen konponbidea; 4 esne kutxa elkarri itsatsi eta hauen iraunkortasun handiagoa emateko, kartoi zati batzuekin bildu genituen. Jada bagenuen leiho burua, beraz, aurrera egin genuen eraikuntza lanetan.

Handik denbora gutxira beste erronka bat suertatu zitzaigun: eta



atearen goiko partea zelan itxiko dugu? Puntu honetan, arkuaren kontzeptua helarazi nahi genien ikasleei, beraz, trukaturako argazki bat ipini genuen, non pertsona bat agertzen zen bere gorputzarekin ezinezko angelu bat osatuz. Argazkian zer ikusten zuten galdetzean, kosta zitzairen konturatzea, baina laguntza apurtxo batekin, ikusi zuten. Gero, beraien aurrean demostrazio bat egin genuen, ezinezko angeluan zegoen pertsonari, beste bat jartzen bagenion kontrako noranzkoan, batak bestea heltzen zuela ikusaraziz. Beraien artean probak egin eta kolperen bat hartu ostean, oniritzia eman zuten, beraz, arkueraikitzeari ekin genion. Gure etxea gu baino altuago zen jada!!

Azken arazoekin topo egin genuen; teilatua nola egin? Teilaz osatuta zegoela esan zuten lehendabizi eta hau horrela izanik, gelan gordetzen genituen kartoizko galleta kutxa hutsak

moztu eta tenpera gorritz margotzea hobetsi genuen irtenbide gisa, eta horretara jarri ginen buru belarri.

Teila polit askoak egin genituen denon artean, bai horixe!

Teilak bagenituen, baina, nola helduko genituen jausi ez zitezen? Puntu honetan, gure ekarpena egin genuen habeen ideia euren artean hedatuz. Teilatuak nola egiten ziren ikusten zen bideoren bat ikusi genuen, eta habeen ideia interesgarria iruditu zitzairen, beraz, orain, gure erronka habe horiek nola eraiki genitzakeen pentsatzea zen. Bat baino gehiagok azkar ekarri zuten gogora leihoak ixteko erabili genuen leiho burua, eta gainontzekoek euren oniritzia eman zioten ideia-ri, irtenbide egokia zela pentsatuz. Egun batzuetako lanaren ostean, gure etxetxoaren teilatua eutsiko zuten habeak prest genituen. Kontu handiz jarri genituen, eta gure etxetxo kasik amaituta zegoela konturatu ginen,

zirrara handi bat sentituz.

Azken ukitua soilik falta zen; tximinoa bat. Horretarako, kubo itxurako kartoizko kutxa bat atondu genuen eta teilatuan guk nahi izan genuen lekuan kokatu. Hainbat aste igaroak ziren etxe bat eraikitzeko helburua jarri genuenetik, baina azkenean, errealitate bihurtzea lortu genuen! Gure etxetxo gelan genuen jada!

Hainbat hilabete joan dira gure etxea amaitu genuenetik, eta egun, ikasleak pozarren ibiltzen dira euren etxetxo barruan bazkariak prestatzen, ilea apainduz edota bururatzen zaizkien milaka ideia bide emanaz.

Irakasleok ere balorazio positiboa egin genuen etxearen sekuentziari buruz, izan ere, eta beti gertatzen den moduan, hainbat puntu hobetu zitezkeela ikusi arren, ikasleek elkarlan, eztabaida eta esperimentazio bidez barneratu zituzten edukiak ez ziren gutxi izan.

didakma  jolastu ikasi hezi

euskarazko jostailu didaktikoen web-gunea



[www.didakma.com](http://www.didakma.com)

[info@didakma.com](mailto:info@didakma.com)





# GALDEIDAZU

## NOLA LAGUN DIEZAIROKE AUTOEZAGUTZAK IRAKASLEARI, BERE EGUNEROKO JARDUNEAN?

**A**utoezagutzak aurrean daukan taldera hurbiltzen lagunduko dio irakasleari, eta beraren eta ikasleen artean zubiak eraikitzen ere bai.

Ezin diogu inori eman geugan ez daukaguna. Horrexegatik, norberak bere izatea bere konplexutasun osoan ezagutzen duenean, errazago bihurtzen da bestea ulertzea eta ezagutzea. Ezagutza horrek aldaketak ekarriko dizkio jarduera pedagogikoari, irakaslea kokatzen den barne-lekua desberdina delako, eta zabaldu egingo da haren begirada.

### Harremana, ikastearen funtsa

Atea ireki eta gelan sartu. Eguneroko gauza, ia konturatu gabe egiten duguna; baina ez da pauso txikia. Sarritan, ez gara ohartzen zenbat eskatzen duen pauso horrek gugandik. Ate hori gurutzatzerakoan, hor, gure aurrean, zer erronka agertzen den: 20 edo 25en bat pertsona; bakoitza bere historia-rekin, bakoitza bere mundu txikiaren barnean, zirrarak dantzan, geugan dakargun guztia pil-pilean..... Eta guztiok elkarren artean talde hori osatzen dugu; pertsonen artean, harreman eta joan-etorri ezkutuak sortzen dira, eta gizaki izatearen konplexutasun osoa dugu aurrez aurre.

Irakaskuntza, maiz, artelan bihurtzen da. Zer egin dezakegu esateko daukagun hori, irakasteko dakarguna, besteengana irits dadin? Non dago tal-



### NAIARA GORROÑO KAZETARIA, PEDAGOGOEA ETA YOGA IRAKASLEA



dearen arreta pizteko gakoa? Zergatik talde bat ondo moldatzen da irakasle batekin, eta beste batekin, berriz, arazoak besterik ez dago? Non dago hori guztia kudeatzeko jakituria?

Gizakion funtsa harremana da: gizaki sozialak gara, bizitza lotura kontu bat delako.

Bizitzan, harremanetan gaude une oro, hiru norabidetan: norbera bere izatearekin, beste pertsonekin eta gure inguruarekin, harremanetan gaude etengabe. Lehenik eta behin, horixe da irakaskuntza: harremana sortzeko bidea. Une oro, bi aldeetan jartzen gaitu hezkuntzak; irakaslea beti izango da ikasle: aurrean duen egoeraren ikasle, eta egun bakoitzak aurkezten dion erronkaren ikasle. Baina jarrera kontu bat da leku bikoitz horretan kokatzea, irakasle-ikasle funtzioetan kokatzea, alegia. Bertute dezente eskatzen dituen jokaera bat da: kementa, onarpena, apaltasuna, pazientzia, bihotz zabala... Gizarte honek erakusten ez dizkigun barne-dohainak dira, norberak bere buruarengan aurkitu eta landu beharko dituen indarrak; autoezagutzaren bidetik landu ahal izango ditugun haziak dira.

Pertsona guztion lehenengo harremana norberagan eta norberarekin hasten da. Bestea ulertzeko, ni neu zer naizen ulertu beharra daukat lehenengo. “Nor naiz ni?”, horixe da autoezagutzak zabaltzen digun lehenengo galdera. Mendebaldeko filosofiaren

aita izan zenak, Sokratesek, aurkeztu zigun printzipioari jaramon eskasa egin diogu: “ezagutu zeure burua”. Agian, horrexegatik gaude horren galduak gaur egungo mundu honetan, ez dakigulako nor garen, ez dakigulako nora goazen, ez eta non gauden ere.

### Izatearen konplexutasuna

Ilustrazioaren garaiaz geroztik, arrazoia bilakatu zen Mendebaldeko kulturaren jakituriaren iturri nagusi, eta iturri bakar ere bai gehienetan. Modernitateak arrazoiaren iraultza ekarri zuen.

Claudio Naranjo psikiatrak irakasleen autoezagutzara bideratutako SAT programa (Searchers After Truth) eratu zuen, hezkuntzaren aldatzea irakasleen eraldaketatik etorriko dela sinetsita. Claudio Naranjok dio gure garunaren funtzionamenduak izugarritzko garrantzia duela bizi dugun gizarte patriarkala azaltzeko, arrazoiaren indarra beste mailen gainera ezartzen delako: “Hiru garuneko izakiak gara –*seres tricerobrados*–. Hizkuntza anatomikoan, hiru garun hauek dauzkagu: senezko garuna, instintuzkoa, narrasti guztiekin partekatzen duguna; emozionala, gainerako ugaztunek ere badutena; eta arrazoizkoa, garatu den azkena eta, hala ere, beste biei inposatzen zaiena. Gure barnean hiru pertsona izango bagenitu bezala da: bat intelektual arauemailea da, aita izango litzatekeena; bigarrena pertsona emozionala da, maitasunaren printzipioak dauzkana, amarekin partekatzen dudana; eta senezkoa da hirugarrena, haurra izango litzatekeena. Bada, gaurko gizartean, arrazoizko garuna nagusitzen da, eta arrazoiaren inperialismoa zirraren eta senaren gainean inposatzen da”.

Gure gizarteak pertsonaren inguruan daukan ideia adimenak sorturiko harresiekin eraikita dago: gorputza, zirrarak, pentsamenduak, egitea..., bakoitza bere aldetik joango balira bezala. Beste maila guztien gainera jartzen da norbera bere buruarengandik urruntzen duen adimenaren nagusitasuna. Ni neure barnetik urruti banago, nola ulertuko dut aurrean dudana? Nire izatetik horren urruti egoteak bestearengandik urruntzen nau. Adimena, arrazoia gara, baina ez

hori bakarrik. Bagara zerbait gehiago ere. Eta horixe da ahaztua daukaguna, gure barne-errealitatea existituko ez balitz legez.

### Begirada-aldaketa

Esan dezakegu nahikoa despistatuta gabiltzala gaur egun, maila global batean. Krisi orokor batean sartuta gaude: ekologian, ekonomian, giza harremanetan... Sortu dugun gizarte-ereduari ezin zaiola eutsi bere horretan ikusarazi nahi digu nolabait krisiak. Agian, horren guztiaren arrazoietakoa bat guztiaren gain arrazoia jartzea izan daiteke, eta gure izate osoak biltzen dituen bestelako mailak ahaztea.

Pertsona eta gizadi gisa aurrera jarraitu ahal izateko, geldialdi bat egin behar dugu lehenengo, eraiki ditugun sinesmenak zalantzan jartzeko: garrantzitsuagoa da edukitzea sentitzea baino, itxurak egitea garena izatea baino, eta lorpena gauza materialak edukitzean dagoela sinetsi dugu.

Autoezagutzak barne-mundurantz begira jartzen gaitu, eta 180 graduko norabide-aldaketa ezartzen du gure begiradan: kanporantz begira egotetik barne-mundura irekita egotera igarotzen gara.

Autoezagutza hori ez dugu ulertu behar nor bere barnean bakartuta gelditzea dela. Autoezagutza horrek bestearengana hurbiltzeko balio behar digu. Ni neu naizena ezagutzeko, onartzeko eta maitatzeko; bestea den hori hobeto ulertzeko, onartzeko eta maitatzeko. Era berean, gure ingururekin, ekologiarekin edota bizitzaren misterioarekin dugun harremana ere eraldatu egingo du autoezagutzak; guztiaren parte gairela ulertuko baitugu, osotasun batean bat egiten dugula guztiarekin.

Irakaskuntzak erabat jaso ditu gaur egungo gizartearen despiste eta krisi horiek. Jarduera bizia delako irakaskuntza, pertsonekin lan egiten duelako; eta gure konplexutasun osoa jokoan sartzen da hor. Irakasleak ezin du errezeta magikoekin funtzionatu; ez dago gela bat nola kudeatu erakutsiko dion teknika miragarrik.

Egoera horretan, irakasleak gehien behar duen ezagutza barne-errealitatearen ulermena da. Norberak bere

**Bestea ulertzeko, ni neu zer naizen ulertu beharra daukat lehenengo. ‘Nor naiz ni?’ horixe da autoezagutzak zabaltzen digun lehenengo galdera. Mendebaldeko filosofiaren aita izan zenak, Sokratesek, aurkeztu zigun printzipioari jaramon eskasa egin diogu: ‘ezagutu zeure burua’. Agian, horrexegatik gaude horren galduak.**

burua ulertzen duenean, bestearen izaera uler dezake. Autoezagutza da ezagutza guztien oinarria, jakintza guztien iturria. Ni naizen hori ikusteko itsu banago, ezin izango dut bestea ikusi; begien aurrean egongo da, baina ez dut ikusiko.

Ardura kontu bat da autoezagutza. Ingeleseko ardura hitza –*responsability*– hitz-joko polita da: *the ability to respond* (erantzuteko trebezia). Horixe da irakasleak behar duena, egoera bakoitzaren aurrean erantzuteko trebezia; hortxe dago irakaslearen arduraren kokka.

Garapen pertsonalarekin konprometitu den irakasleak bere jakituria bizipenean oinarritzen du; aurrean aurkezten zaion errealitatetik ikastera bideratzen du barne-kontzientziak. Taldean gertatzen den horretan dago eguneroko ikasgaia, ikasle bakoitzak planteatzen dizkion zailtasun eta erronketan.

Harrigarria da irakasleen prestakuntzan autoezagutzara zuzendutako gairik ez jorratzea. Aldiz, hezkuntza formalaz kanpo, garapen pertsonalari buruzko ikastaro dezente irakaslez osatuta egon ohi dira. Beharra daukatelako, beraien lana maite dutelako, eta badakitelako beraien barne-lanak onura ekarriko diela maila pertsonalean, eta hori euren eguneroko jardunean islatuko dela.

Pertsonaren garapenera zuzendutako hezkuntzak, autoezagutzak, gure izatea osatzen duten askotariko mailak jorratuko ditu: gorputza, zirrarak, adimena, alderdi transpertsonala.

Gorputzarekiko kontzientzia izateak sakondu egingo du neure buruarekiko harremana; biziago egingo nau. Neure gorputza sentitzen dudanean, errazago izango da aurrean dudan horren gorputza irakurtzea. Gorputzaren kontzientzia lantzea sentsibilitatea esnatzea da, samurtasuna trebatzea, mundu honek agian gehien behar duen gauzetariko bat.

### Gorputza

Gure garapen pertsonalaren funtsezko parte bat da gorputza berreskuratzea. Gorputza da gure lehenengo etxea, norberaren bizitza, esperientzia guztiak gertatzen diren lurraldea. Baina erabat ahaztua izan dugu gorputza; arlo horretan ere, urruti, kanporantz begira kokatu gara, gorputzaren kontsumoan eta neurrigabeko kulturean, itxuran. Gorputzaren kontzientzia izateak sakondu egingo du neure buruarekiko harremana; biziago egingo nau; eta sentsibilitatea findu dezakegu, gorputzaren kontzientzia landuz. Neure gorputza sentitzen dudanean, errazago izango da aurrean dudan horren gorputza irakurtzea. Gorputzaren kontzientzia lantzea sentsibilitatea esnatzea da, samurtasuna trebatzea, mundu honek agian gehien behar duen gauzetariko bat.

Gorputzaren kontzientzia lantzea maitasuna garatzen joateko bide bat da. Soilik ezagutzen dugun hori maita dezakegu, eta autoezagutzaren benetako muina maitasuna garatzea izango da. Horixe da eta gure esentzia, H. Maturana biologoak Sistema Autopoietikoen Teoria eratzean azaldu zuen moduan: “Izaki biziduna sortzeko eta harreman sozialak eratzeko beharrezko oinarri biologikoa maitasuna da. Maitasunik gabe, ez dago sormenik” dio *El árbol del conocimiento* liburuan.

### Zirrarak

Daniel Golemanek Hezkuntza Emozionala ezagutzera eman zuenetik, zirrararen garrantziaz jabetzen joan gara. Agerikoa da, gaur egun, zirrarrek erabateko eragina dutela gure eguneroko bizitzan, baina, sarritan, zirrarak ikasleak landu beharreko zerbait dela onartzen dugu, eta, berriz ere, kanpoan kokatzen dugu fokua, besteengan.

Gure zirrarrek eta egoak gudan nola jokatzaren duten ulertarazi beharko digu autoezagutzak, eta maila psikologiko horretan barneratu beharko dugu lan sakon bat egiteko.

Golemanek Adimen Emozionalaren inguruan egindako hainbat ikerketaren ondorioak ematen ditu ezagutzera *Liderazgo, el poder de la inteligencia emocional* liburuan. Besteak beste, badakigu orain gaitasun emozionalak erabakigarriak direla lidergo-lana aurrera eramateko, koefiziente intelektualak edo trebezia teknikoak baino are erabakigarriagoak. Ikerketek agerian jarri dute zirrarrek duten garrantziaren jabe direla lider balioetsienak. Horren arrazoia gure garunaren funtzionamenduan dagoela erakutsi dute Golemanek egindako ikerketek. Sistema linbikoa, zirrarak kudeatzen dituen arlo hori, zirkuitu irekia da. Horrek esan nahi du kanpoko estimuluek erabateko eragina dutela zirkuitu ireki horretan. Gure oreka emozionalak zerikusia du beste pertsona batzuekin sortzen den harremanarekin. Sistema linbikoa zirkuitu irekia dela aurkitzeari esker, egiaztatu da zirrarak kutsatu egiten direla. Besteen egoera mentalean erabateko eragina dugula.

Hori begi-bistakoa da bere jarduerari arreta jartzen dion irakaslearentzat. Badaki gelako giro emozionala kutsakorra dela.

Berriro diogu: gure zirrarak ezagutzen ez baditugu, horien jabe ez bagara, ezingo ditugu besteen zirrarak ikusi, ulertu eta kudeatu.

### Adimena

Ekintza pedagogikoa *orainean* gertatzen da. Baina, askotan, ikastalde baten aurrean gaudenean, gure burua ez dago han, ez gaude presente: iraganean edo etorkizunean galduak gaude gure pentsamenduan. Ez dugu

antzematen une horretan zer gertatzen den, eta ez gaude *orain* horretan esna, gure pentsamenduen joan-etorrien nahaspilan gaudelako. Hor galtzen gara, eta areago ari gara gure aurreiritzietatik abiatuta, aurrean gertatzen den errealitatea ulertzetik abiatuta baino.

Horrexegatik, ezinbestekoa da adimena baretzea, ikuspegi argi bat izateko. Horixe da meditazioaren helburua, antzinako tradizio askok, hala nola Budismoak, landu dutena, eta gaur egungo gizartearen gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dena, besteak beste, Mindfulness teknikaren bitartez. Adimena garatzeko bidea da meditazioa, eta, gaur egun, ebidentzia zientifikoek frogatzen dezakete meditazioaren bitartez adimena entrentzeak aldaketa fisiologikoak sortzen dituela garunean. Meditazioarekin onura psikologikoak ere bizi dituzte: azkarrago erantzuten diete estimuluei, eta baliabide gehiago dituzte estresa kudeatzeko, besteak beste.

### Maila transpertsonala

Modernitateak ekarri zuen ezaugarri nagusia munduaren ikuspegi metafisiko-erlijioso bateratuaren haustura izan zen. Gizakia naturatik at eta guztiaren gainetik kokatu zen, bizitzaren ikuspegi erabat desakralizatua eta materialista egia bakartzat hartuta. Garaia da, orain, gure maila transpertsonala ikertzeko. Gure sinesmenak eta gure egiak kokan jartzeko, eta identitatearen zentzua pertsonaren mailatik harago hedatzen duten esperientzietara irekitzeko, gizadia, bizitza eta kosmosaren kontzientziara zabaltzeko.

Nik neuregan egiten dudana bide bat da autoezagutza: askatasun-bide bat. Norberaren sufrimendutik askatzeko bide bat. Hauxe erakusten digu autoezagutzak: gudan libre izan gaitezkeela bestea jaso ahal izateko; bestearen egoera antzemateko, ulertzeko, maitatzeko.

Teknologiaren eta komunikazioaren arloko modu berriek sare bakar batean konektatzen gaituzten une honetan, autoezagutzaren barne-teknologia garatu beharko dugu, izateatik izatera konektatu ahal izateko. Hezkuntza parte-hartzaile bat sortzeko, unekoa, bizia.



# ARGITALPENAK



## BIOLINA

Antonio Rubio eta Xabier Olaso / Óscar Villán

### PAMIELA-KALANDRAKA

Zolitasunez, onomatopeiaz, sentsazioz eta sentipenez beteriko munduari ernai egongo da haur aurre-irakurleen belarria kontakizun honekin. Musika-tresnak, esku-zartak eta musuak irudi gozo-samurretan bildurik ematen dira helduek umeekin batera irakurtzeko moduko liburu honetan.



## TXOMINTXO ETA PERUTXO IOSURI FARDELA ALDATZEN

P. eta T. Magdalena / I. Mitxelena

### ELKAR

Irakaslea lanpetua dabil: Loreak min hartu du eskuan, eta zauria sendatu behar dio. Bitartean, Txomintxoren eta Perutxoren erdian eseri da Iosu txikia, eta kaka egin duela aitortu die bikiei. Une horretan irakasleak fardela aldatu ezin dionez, eurek aldatuko diotela erabaki dute.



## BIZIAREN HISTORIA

Stéphane Ledu / Caroline Hue  
Itzultzailea: Miren Agur Meabe

### TTARTTALO

Jakintza liburu honetan Big-Bang-etik gizaki garaikiderainoko ibilbidea erakusten da. Orri biko bakoitzean pauso kronologiko-ebolutibo bat emanez, ilustrazioek hartzen dute ia azalera osoa, eta azalpenak irudien gainean ematen dira. Biziaren historiaren ikuspegi orokor bat ematen du liburuak.




## OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

Pello Añorga / Jokin Mitxelena

### ELKAR

Aro zahar baten amaiera eta garai berri baten hasiera gertatu zeneko egun haietako baten, Olentzerok eta Mari Domingik elkar ezagutu zuten. Bataren zein bestearen pasadizoak kontatuz, elkar ezagutu zuten une haren istorioa jasotzen da argitaratu berri den ipuin ilustratu honetan.



## ARBOLA ESKUZABALA

Shel Silverstein / Itzultzailea: Manu López Gaseni

### PAMIELA-KALANDRAKA

Adiskidetasuna, ingurumena zaintzea, zoriontasuna eta beste aldarrikatzen dira liburu honetan. Samurki eta hunkigarriki kontaktuta, haurtzarotik helduarorako bidearen kontakizuna egiten da; arbolak mutiko batenganako dituen adiskidetasunari eta eskuzabaltasunari buruzko istorio bat osatuz.



## KOLOREAK

Herve Tullet

### TTARTTALO

Koloreen mundu dibertigarria deskubritzeko liburu bat da, etxeko txikien eskuetan bizitza hartuko duen liburu interaktiboa. Orrialdez orrialde ematen diren argibideei jarraituz, haurren eskua "magikoa" bihurtzen da. Eta esku magiko horrekin oinarritzko koloreak deskubritu eta berriak sortuko ditu.

# PROPOSAMENA

## ALLUITZ NATURA

### Egun batez artzain

Artzainaren eguneroko bizitza eta zereginak partekatzeko aukera ematen du Abadiñoko Alluitz Natura landa garapeneko enpresak. Idiazabal gazta ekoizten duen baserri batean du egoitza eta ikasle taldeentzat zein familientzat aisialdirako jarduerak antolatzen ditu.



**U**rkiolako Parke Naturalaren magalean, 2011n ireki zituen ateak Alluitz Naturak. Ikasleei zuzenduriko hainbat tailer ludiko eta hezitzaile eskaintzen ditu. Ekologiarekin eta landa inguruarekin loturiko ekintzak dira gehienak. Eguna artzainarekin eta bere artaldearekin igarotzeko aukera emateaz gain, artilea lantzeko, gazta nahiz gatzatua egiteko, ardiei ilea mozteko, ortu ekologikoan lanean aritzeko nahiz kandelak eta xaboa egiten ikasteko parada ere eskaintzen die ikasleei Alluitz Naturak. Azpiegi-

turak autobusez joateko, nahiz eguna bertan igarotzeko prestatuta daude.

Alluitz Naturako kideek azaldu bezala, naturarekin edota animaliekin kontaktuan egoteko aukera paregabea ematen du inguruak: “Umeentzat jardunera ezinhobea eskain dezakegu eguna lagunartean edota familian igarotzeko Urkiolako Parke Naturaleko landa inguruetan. Era askotako tailer eta ekintzak antolatzen ditugunez, artzainaren eguneroko lanak ezagutzeaz gain, artisauro produktu bat ekoizteko, baserriko beste animaliak ezagutzeko nahiz ortua lantzeko

aukera ere badute. Gainera, gure instalazioak nahi beste denbora eman dezake edonork, nork bere kasa egunpasa eginaz”.

#### **Artzain eskola**

Urkiolako Parke Naturalean dagoen Abaunza baserrian Patxi Solana artzainak bere eguneroko bizitza eta zereginak partekatzen ditu ikasleekin. Eguna, beraz, abeltegia eta gaztandegia dituen baserrian hasten dute bisitariek, Patxiri ardiak jezten lagunduz. Ondoren, ardiak lasai utzi eta transhumantzia ibilbide labur bat



egiten dute inguruko baso-zelaietan barrena, “Harri” txakurra lagun.

Urtaro batetik bestera ardi-lanak aldatu egiten badira ere, hamaika jardueratan parte hartzeko aukera dute haurrek: bildotsei esnea eman, ardiak jezten ikasi edota artilea nolakoa den ezagutu. Artzaintzak beste hainbat gai jorratzeko aukera ere ematen die ikasle-taldei, hala nola, landa ekonomia, ekologia, lehen sektorea, ingurugiroa... Gainera, edukiak ikasleen adinera eta interesetara egokitzen dituzte hainbat hezkuntza programazioen bitartez.

### Artilearekin lanean

Artilearekin lotutako tailerretan lehendabizi, hainbat artile motaren arteko ezberdintasunak bereizten eta bakoitzak izan ditzakeen erabileren inguruan ikasten da. Gero, artile mota horiek kardatzen dituzte ikasleek, eta bide batez, ekoizpenean murgiltzearekin batera, artile mota bakoitzaren berezitasunak ezagutzen dituzte.

Ikasleek modu ludikoan lantzen dute artilea, eta feltro teknika erraz bat erabiliz artilezko pultserak egiten dituzte, bakoitzak berea, gero esku-


muturrean jarrita etxera eraman ahal izateko.

### Gatzatu tailerra

Artzain eskolan aritu osterako ekin-tza osagarri ezin hobea da gatzatu tailerra. Ardiak jetzi ondoren esnea esterilizatu eta gatzatu gozoak ekoizteko aukera dute umeek ardi latxaren esnea baliatuz. Gainera hozten utzi eta egindakoa dastatzeko ere baliatzen dute aukera. Gatzatua hoztu bitartean, potea apain dezakete ikasleek. Bide batez, gatzatuaren osagaien inguruan ikasteko eta sormena lantzeko modua ere badute.

### Bestelako ekintzak

Artzaintzarekin eta gaztagintzarekin loturiko tailerrak egiteaz gain, beste hainbat aukera ere eskaintzen ditu Alluitz Naturak: talo tailerra, xaboi tailerra, kandela tailerra, paper saskigintza, plastilina ekologikoa, hareazko eskulturak, ortu bertikalak, baserriko animaliak... Gainera, egun osoko jarduerak ingelesez egiteko abagunea dute haurrek, eta nahigo izanez gero, tailer zehatz bat aukera dezakete ingelesez aritzeko.



Mendiola auzoa, 25  
48220 ABADIÑO

### INFORMAZIOA:

[www.alluitznatura.com](http://www.alluitznatura.com)

### ERRESERBAK:

[info@alluitznatura.com](mailto:info@alluitznatura.com)  
Tel: 688 875 120

### KOKAPENA:

Alluitz Natura Abadiñoko (Bizkaia) Mendiola auzoan dago, Mikeldi GR-aren barnean. Ibilbide hori Urkiolako Parke Naturalean barna igarotzen da, paraje zoragarrian.

### NORI ZUZENDUA:

Bereziki Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako umeentzat prestatuturik dago, nahiz eta adin nagusiagoak ere hartzen dituzten. Bestelako talde, familia, elkarte, eta abarrentzat ere eskaintza bereziak dituzte.





# ATZEKO ATETIK



## IRAKURLEA AKTORE

ALEX TELLO ANTZEZLEA

**B**akarriketa honetan irakurlea aktore bihurtuko da eta bere ahotsak hartuko duen eremua agertokia izango da. Irakurketa agiterakoan, bere buruarentzat egiten badu, bera izango da ikus-entzule bakarra, eta beste norbaitekin partekatzen badu, entzuleria zabalagoa eduki ahal izango du. Tira, berak erabaki dezala. Beno, irakurle, berak baino zuk. Bai, zu. Une honetan zu baitzara lerro hauen jabe, nahiz, autorea ni izan. Ni autorea eta zu aktorea, aktore anonimoa edo protagonista ezezaguna. Baina, ez badut protagonismoa nahi, zertarako antzeztu? Nik bizipenak, sentipenak eta abar partekatu nahi ditut baina ez nire egoa elikatu edo gogoia hustu nahi dudalako.

Andoaingo Ikastolan egin nuen antzerkia, lehen aldiz. Hamar-hamaika urte nituenenerako bagenekien antzerkian zegoela nire bidea. Epaiketa batean epaile izan nintzen bitan, ikasgelan eta Lizarrara egin genuen irteera hartan. Ikastolan egin genuen lehenengo saio hartan, antzezipen bihurriarekin harrotu egin nintzen eta handik egun batzuetara, Lizarrako kanpinean, nire eginkizuna ondo egiten saiatu eta epailearen antzezipena neurtuagoa egin nuen irakaslea berriz ez haserretzearen. Lizarrako antzezipena arrakastatsua izan zen eta horrekin ni pozik.

Beste urte batean, gogoan dut gure

irakasleak imitatu genituela irakasleen edo maisu-gelan girotutako antzerkitxo batean. Oso dibertigarria izan zen. Ondo pasa nuen eta primeran sentitu nintzen. Eta, uste dut antzezte horrexegatik egiten dudala, ondo pasatzeko eta irudimenarekin aske jolasteko. Komikotasuna badut. Eta, erregistro dramatiko atsegin dut baina ez dut gozatzen, nahiz eta drama egitea gustukoa dudan. Bitxia da ezta? Ez dut gozatzen baina egitea gustukoa dut.

Tarteka, Ikastolarekin antzerkia ikusterera joaten ginen eta ez ditut ahaztuko hamalau edo hamabost urterekin ikusle bezala gozatu nituen oroimenean jasoak ditudan “Adagio Violentissimo” (Andoaingo La Sallen) eta “Kakatu berdea” (Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxean). Gero, ez nuen antzezipen bat ikusiko hogeitau urte izan arte. Bikotekidearekin batera hasi nintzen antzerkiak ikusten eta geroago bakarrik, askotan. Aita Manuel Larramendi Ikastolatik ia hemezortzi urterekin irten nintzen eta ondoren Gizarte Hezkuntzako ikasketak burutuko nituen. Ondoren, besteak beste Kale Hezitzailea izan nintzen hogeita sei urterekin antzerkia ikastera ausartu nintzen arte. Inoiz ez da berandu. Eta antzerkia lantzen lau urte behar izan nituen neure burua hamaika-hamabi urte nitueneko puntuan berriz aurkitu ahal izateko. Nik dakidala gatzetxo

nintzeneko garai haietan Andoain eta inguruetan ez zegoen Batxilergo Artistikoa ikasteko aukerarik. Egun, hogeita hemezortzi urte ditut eta dagoeneko antzezipen, idazten, zuzendari lanetan, ekoizlten... antzerkian profesional zortzi urte egin ditut. Haur eta helduen irakasle ere izan nintzen bost urtez. Zenbat eta gehiago dakidala pentsatzen dudanean, orduan sumatzen dut zenbat eta zenbat geratzen zaidan ikasteke.

Antzerkia amets bat zen niretzat eta idealizatu nuen. Aktore ezagunen ospea arrakastarekin erlazionatu eta haiengandik zenbat eta urrunago sentitzen nintzenetan porrot batean murgiltzen nintzen.

Nahiz eta hamabost urteetako ikasketak eta jarduna falta zaidan, aurkitu dut nire tokia. Idealak hautsi zaizkit baina dirudienez “dagokidan toki horretan egoteak” balio dit. Urte honetan nik idatzitako hiru antzezipen estreinatu ditut. Prozesuen zailtasunei aurre egiten nekez ikasteaz gain, prozesuak gauzatzeak ematen duen ikasketak askotarikoak zein anitzaz jabetzen naizentan sentitzen naiz arrakasta batean. Eta, bizitza bezala, arrakastaren sentipena ez da guztiz ederra, baina balio dit.

Irakurle, idatzi honekin nire buruan edo pertsonan sartzeko aukera izan duzu. Hala, aktore batek pertsonaia lantzeko modu bat ezagutu edo ikastea aukera izan duzu.

# Berdean hezi

haurrak naturara hurbiltzeko ideiak

Heike Freire



Gaur egungo haurrek leku itxietan ematen dute denbora gehiena, eserita eta pantaila bati begira. Helduak segurtasunarekin itsuturik daude... Egoera horren aldaketan inplikatzeko prest dauden pertsona, guraso eta hezitzaile guztiei zuzenduta dago liburu hau.

Eskaera egiteko: **[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)**



# ORAIN

Kontzentrazioa lantzeko erlaxazio ariketak

MARINA PINTOS



Marina Pintos piano eta yoga irakaslea da disko honen egilea. Esperientzia zabala du ikasleei zein irakasleei kontzentrazio-erlaxazio ikastaroak ematen, eta bi hamarkada hauetan hutsune nabarmen bat sentitu du: euskarazko ariketa grabatuen falta, hezitzaileek ikastaro horiei jarraipena eman ahal izateko. Marinak berak sortu ditu disko honetako kontzentrazio-erlaxazio ariketak, eta musika zein ahotsa ere bereak dira.

**ORAIN**, Hik Hasik argitaratu duen CDa. Informazioa eta eskaerak

**[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)** helbidean